

## Artzaintza Gorbeian filma emongo dabe Areatza, Zeanuri eta Zeberion

16. orrialdea

## Antartidarako bidean da Txikon

Antartidan, hainbat menditan ibilbide barriak zabaldu eta eskietan jeitsi ostean, Himalaiara joan eta Ama Dablam eta Everesteko tontorrak zapaldu gura dauz Lemoako alpinistak. Hirugarren aldia izango da Everestera neguan igoten saiatzen dana, baina aurretik ikasitakoagaz lortuko dabela uste dau Txikon. 14. orrialdea



## Emakume Master Cup irabazi dau Ainhoa Romero lemoaztarrak

14. orrialdea

# begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

# 330

2019ko abenduaren 17a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketako sariak abenduaren 22an banduko dira

Igorreko Lasarte Aretan izango da ekitaldia. Zuriñe Iarrituk aurkeztuko dau eta Oihan Vegaren bakarriketea eta Ismael Pereiraren ikuskizuna egongo dira. Saridu-

nak Igorreko alkatea, Zertu Kultur Elkartearen presidentea eta epaimahaiko kide baten eskuetatik jasoko dabez sariak. Jostailu erotikoak zozketatuko dira. 16. orrialdea



## Ehun jardueratik gora Gabonaldian

Gabonetako sasoiaren inguruan, Arratia, Ubide eta Zeberio udalak eta alkarteak 100 jardueratik gora prestatu ditue eskualdean zein eskualdetik kanpo egiteko. Gehienak umeentzakoak izango dira, eskolako oporrak aprobetxatuz. Gabon egunean, Olentzerok eta Mari Domingik izango dabe protagonismoa herri guztietan. Gabonetako parkeak be egongo dira, baita Bilboko Gabonetako Umeen Parkera txangoak be.

Sasoi honetako beste klasiko bat, kontzertuak dira. Areatzako Bandak, Luis Iruarizaga Abesbatzak eta Arratiako Musika Eskolako ikasleak eskainiko ditue kontzertuak.

Zineak, antzerkiak, berbaldiak, erakusketak, Gabon Zahar eguneko lasterketak, Errege magoen Kabalgatak... osotuten dabe Gabonetako egitaraua. 10. 11. eta 12. orrialdeak



### IGORRE

## Aralucek burrukan jarraituten dau lanpostuak defendiduten

Araluce hartzekodunen konkursoan dago eta beharginak greban. Aralucekoak, abenduaren 20rako manifestazioa deitu dabe enpresearen bidegarritasunaren alde. Bitartean, fabrikearen atean baina "sarrerea oztopatu barik" egoten dira 4 orduko txandetan. Ez dabe itxaropena galdu eta egoera "bideratu daitekela" uste dabe. BATZek jarkera "zurruna" egozten deutso BATZ Aralucerri. 5. orrialdea

### AREATZA

## Urkullu Lehendakaria Areatzan egon zan Arratia zentroa inauguratan

Zentroa oin dala bederatzi hilabete inguru zabaldu zan gurasoengana indarkeriagaitik kondena bete behar daben adin txikikoentzat, baina abenduaren 2an egin zan inaugurazioa ekitaldia. Bertan, Lehendakariak gainera, Lan eta Justizia Sailburua, EAEko Auzitegi Nagusiko presidentea, Autonomia Erkidegoko fiskal nagusia, Gobernuaren Bizkaiko ordezkariordea eta Areatzako alkatea egon ziran. 7. orrialdea

### ZEANURI

## 50 garrenez Gorbeiko kurutzean jaiotzea ipiniko dabe 22an

Abenduaren 22an be, berrogeta hamargarrenez mendizale talde batek Gorbeiko kurutzeko hanka baten jaiotzea ipiniko dau. Efemeriak etiketea eskatzen dauala eretxita, ezkon jantzia eta korbattea jantzita igongo dira taldekoak Gorbeiko tontorrera (1.482 m.). Ezkontza bat antzeztuko dabe Edurretako Ama Birjinaren ermitan. Konbidauak be ezkontza baterako moduan jantzita joango dira.

1970ean ipini eban lehenengoz Bilbon bizi zan erlojigile batek jaiotzea kurutzean. Ondoren, bere bezeroetako batek hartu eban lekukoa eta lagun talde batek urtero ipini dau harrezkero.

5. orrialdea

Gabon zoriontsuak opa deusueguz arratiaz guztioi

LAN BERTIKALAK

SOXA

T.: 946 036 069

soka@sokavertikal.com

sokavertikal.com

Estudio Duende-k jai zoriontsuak opa deusuez!

Diseinu grafikoko estudioa Areatzan.

+ Irudi korporatiboa. + Web-orrialdeak.

+ Event Sketch: Ilustrazioa zuzenean.

MARTIN MURO | 617 332 691

www.estudioduende.com

Askatasun kalea, 34D, behea - 48143 - AREATZA



# Literatura txokoa

## ATZERRIAN

Oskol zaharra jaregin eta barria gogortu arteko barne komeriak.

Haize-zurrumbilo erdian egotea langoa edo urpeko burbuila artean norakoa galtzea letxe dogu eleberri labur honetako lehenengo martxea sartzeari darion sentipena. Orrialdeak irakurri ahala, firu nahasian begiak musturrak non daukazan topau ezinik ibili naz, harik eta, pitinka-pitinka, lur hartzeako paraxutaren osagarriak protagonistak askatu dituan arte.

Gaur-gaurkotasunezko (lana beste herrialde baten, lagun/adiskideak beste herri bateko kideak, zein baino zein bereziagoak) bizitzaz zipriztinduko kontakizuna dala esan leteke, euskarri finko bako kontakizuna oraingoaz bete, obsesinoaren jira-biran

protagonistak eregi dauan barne munduaren jaurtiketea: erruduntasuna (bera atzerrian dala amaren zaintza eta gero hila ahaztea) zamari bakarra itxita ze aita ez da horretako gauza, horra gizontasuna! hainbeste ahaleginen ostean euki dauan jomuga eskuratuz batera... hustasuna, heldulekurik eza, norberak eregi dauan irudikeriari gogor eutsinaren ostekoa: zelango-halango zapuzketea.

Idazkera joriak irudiak kiribilduz linealtasuna goitik behera bihurtuz daroa irakurlea, arestian esan lez, eleberri honetan narrazio klasikoaren (hasierara, korapiloa eta amaierara) lorratz txikiak baino ez, ze bat-bateko murgilaldian hasi da, korapilotik gauza zehatzik ez, eta amaierara emoteko -no-

zonoz liburu guztietan orrialdeak akabetan jakoz eta- etxera itzulerara.

Atzerria bakartasunaren metafora edo bizitzaren abiatze-biajea?

"Ez han, ez hemen" esan edo pentsatuz amaituko da, Ruperren *Isidro* kantak ondo islatzen dauan moduan, atarian eguzki lorerik ez dagetenean, zuztarrak aireko bidea hartu eta arbolak hegazkadarri ekiten deutsan unetik, lur hartu ezinik.


**Hatz Erian**

## Atzerrian

**Nerea Balda**

**Pamiela argitaletxea, 2019**

**120 orrialde**



## TELEFONO INTERESGARRIAK

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako Farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**  
**Abenduaren 16tik 22ra**  
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

### 22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.  
**Abenduaren 23tik 29ra**  
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

### 22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.  
**Abenduaren 30etik urtailaren 5era**  
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

### 22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

### Urte osoan

**22:00etatik 09:00etara**  
Gomezeta Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

### Medikuak

**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren** 94 433 33 33

**Areatzako Notarioritza**

94 673 92 26

### Bizkaibus 94 612 55 55

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jai egunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jai egunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jai egunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jai egunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jai egunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jai egunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jai egunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jai egunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jai egunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jai egunetan ez

dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaoetik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jai egunetan ez

dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jai egunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaoetik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jai egunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermitabarri-Arriorriaga**

Jai egunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arriorriaga-Ermitabarri**

Jai egunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

### La Union 94 427 11 11

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jai egunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jai egunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

## Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

**EUSKO JAURLARITZA** **GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpuri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Irati Urien.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpuri eta Iñigo Iruarizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tirada:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Klima aldaketea 2050

Klima-aldaketea, gizateriak jasaten dauan ingurumen mehatxu handiena da. Klima aldaketea gure sasoiko txarrena da eta ondorioak suntsitzaileak izan daitezke erregai fosilen eta berotegi efektuko gasen emisinoakazko menpekotasuna murrizten ez badogu. Izan be, klima aldaketearen eraginak nabarmenak dira daborduko eta datu honeek erakusten ditue:

-Batez besteko tenperatura 1,1 °C igo da daborduko industria aurreko garaietatik.

-2015-2019 denporaldian, Munduko Meteorologia Erakundearen (MME) arabera, seguruenik inoz izan dan bost urteko aldirik epe-lena izango da.

-Itsasoaren igoera tasa 5 mm-raigon da 2014-2019 tarteko urte bakotxean.

Baina gaur egun be gero eta larriagoak izango dira eragin ekonomiko eta sozialak, esaterako:

-Landareak eta elikagaien ekoizpena.

-Lehortekak.

-Osasun arriskuak.

-Eguraldiaren muturreko fenomeno meteorologikoak. Adibidez: ekaizak eta urakanak...

-Mega-suteak. Adibidez: Amazonia (Brasil, Bolivia), Alaska (AEB)

Batuak), Siberia (Errusia), Australia osoa, Galiza osoa eta Angola, El Congo eta Zambia (Afrika).

-Ipar eta Hego poloak.

Adituen araberako eszenatoki okerrenetan, tenperatura igoera mende amaieran 4,8 °C igotera heldu daiteke. Klima aldaketea ingurumen, politika, ekonomia eta gizarte ikuspegira helduan dan arazo globala da eta gastu ekonomiko handiak eragiten ditu. Eta, zenbat eta beranduago hasi, orduan eta handiagoa izango dira tenperatura igoera egokitzeko inbersinoak.

Europar Batasuneko berotegi efektuko gasen emisinoen %79a energia edo garraio erabilerarako erregaiak erretearen ondorioa da, Eurostat-en datuen arabera.

Urtenbidea, herritarren esku dagoan energia iraultza da; energia barritzagarrien bidez klima aldaketearen ondorioak arindu eta enplegua sortuko daben eta energia elektrikoaren kostuak murriztuko dituen energia eraginkortasuna lortuko da. Erregai kutsagarriak eta energia nuklearra baztertu behar doguz eta herritarren parte hartzea handitu, transizino barritzagarriaren laguntza izan dagian.

"Klima aldaketea ondorio ezinbestekoak izango dituan errealdadea da, baina oindino be ondorio larriagoak gitxitu daikeguz".

ANDONI VAZQUEZ

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Anpulu



Burbuilearen itxurea daukan gauzakaz erabilten da gehienbat. Tantakada lodi, bete-betea be anpulu da (anpólue, anpúllue, púlue ahoskatuta). Gaur egun formarik zabalduena batuan erabilten dan malkoa da. Gure artean formarik erabiliena ostera, negar-anpulu berba alkarketea zan. Adibidez, "Negar-anpuluak urten arazo egin deustaz kipuleak ebagiten ibili nazenean". Esangura horretaz gain kereixa mota batzuei be anpollea esaten jakie. Eta baita ardaoa edo ura eroateko erabilten ziran garraioai be anpulu esaten ei jakien.

## ERETXIA

### Larrialdi klimatikoaren gurean da

Sarritan entzuten dogu aldaketa klimatikoari buruz eta planetearen etorkizunari buruz, honek ekarriko dituan ondorioez. Guztiok entzun dogu negutegi efektuari buruz eta ozonoaren apurketeari buruz, baita honek ekarriko dituan ondorioez be. Badakigu be industria handiak dirala gas kutsakorrek sortu eta atmosferara kontrol barik isurtzen dituenak, honegaz lotutako garraioak eta errausketak inguruan dituen eraginak zeintzuk diran eta izango diran. Orduan... zer itxaroten gagoz sistema honen gurgipetik atera eta etorkizun iraunkor batera eroango gaituen aldaketak egiteko?

Baina itxaron, begiratu ingurura: danok daukugu negazionista izentatzen danen bat. Euren argumentuak sarritan guzur galantak izan arren, Berri txarrak abestiak inoan legez, "Esan gezur bat, mila aldiz..." eta holan egia bihurtuten da. Holan ba, defendiduten dituen argumentuen artean honakoak entzuten dira batez be: "Klima aldaketea ziklo naturalaren zati bat baino ez da", "Aldaketak eguzki orbanen edo izpi kosmikoen ondorio dira", "CO<sup>2</sup>a, atmosferaren zati txiki bat baino ez da, beraz, ezin dau larregi berotu", "Zientzialariak datuak manipuletan ditue tenperaturearen goranzko joerea erakusteko", "Eredu klimatikoak ez dira fidagarriak eta sentikorregiak dira karbono dioxidoagazko"... Eta gu, honeri aurre egiteko gagoz, zientziak frogatu dauana eta egunerokotasunean nabaritzen doguna egia dala lau haizetara zabaltzeko.

Aldaketa klimatikoari buruzko albisteak bilatzen hasi ezker, jarraian agertuko jaku egunotan Madrilan egiten dabiz COP25-aren barri. Mundu osoko 200 herrialdetako milaka ordezkari krisi klimatiko honeri aurre egiteko neurriak eta akordioak lortzeko-

### MAKATZAK ARRATIAKO EKOLOGISTAK

genduana, "larrialdi klimatiko" izentau dabe. Klima aldaketeari buruzko Gobernuarteko Taldearen (IPCC) aurreikusten dituen klima-eszenarioak kontuan izanda, 2033rako tenperaturak igo eta urteko batez besteko prezipitazioak behera egingo dabe; eta urterokotasuna areagotuko da, hau da, lehortekak eta uholdeak sarriago izango dira.

Arratian fokua jarri ezker, honek guztiak zelango eragina izango leuke gure paisajea? Hasteko, kontuan izan behar dogu, gure mendietako lursail asko monolaborantzan ustiatzen dirala. Gainera, zugatzen zati handi bat ahulduta dago jada, beraz, lehorteen aurrean ez leukie aukera handirik izango bizirauteko. Bestetik, azken urteotan egin diran mozketak masiboak kontuan izanda, euriteen eraginez, higadura tasen igoera nabarmena aurreikusi daiteke. Bestalde, lurzorua pobreago bihurtuko da, ura gordetzeko ahalmena gitxituz. Beraz, gure akuiferoen errekarra murriztagoa izango da eta ondorioz, errekarrik elikatzen dituen hainbat iturrik sikitutera joko leukie.

Ezin dogu beraz, planeta honetan gutako baxotzak daukan poderea ukatu, izan be, mandariariak eta enpresak ez dabe ezelango akordiotara heldu gura izango. Benetako ekonomia zirkularra sustatu behar dogu, bizitza luzeko materialen erabilera lehenestu, ahalik eta konponketa, berrerabilera eta birziklapen gehien optimizauz.

Argi dago guztion eskuetan dagoala larrialdi egoera honeri aurre egitea eta egunero pausu bat emon daikegula erakustea; plastikoa gitxiago erosiz, birziklatuz, garraio publikoa erabiliz, bertakoak diran elikagaiak konsumiduz, elektrizidade konsumoa murriztuz, energia barritzagarrietan oinarritutako eredu bultzatuz, egunerokotasuneko mobikortasuna murriztuz... eta bai, guztion egunerokotasuna kontraesanez beteta dago, baina nahikoa da geure burua zigortzeaz! Ekintza txikiak be aldaketa handiak eragin leikez!

tan bildu dira azken urteetako datu kezagarriak buelte emoteko. Egoerearen larritasunaz jabetzeko gizakiak eragindako kalteak itzulezinak dirala ohartzea besterik ez dago. Bai, hori da, kalteak ezingo doguz konpondu, ha-ta guzti be, arazoaren larritasuna gitxitzea oindino posible da planetearen tenperatura igotea gelditzeko besteak beste.

Hau dala eta, oin arte "aldaketa klimatiko" legez ezetuten

0, 1 eta 2 urteko matrikularia zabalik

Kamengo Ama Ikastetxea  
ARTEAREN ETXEA

**ETORRI HAZI  
ETA GUREKIN**

Elkarrizketa pertsonalizatua

94 673 09 35 [cmtkamengo@kamengoama.eus](mailto:cmtkamengo@kamengoama.eus)



## LUMATUTEN

MAITE ARTABE  
URKIRIGaua etsipenetik  
zeturten

**V**gaua etsipenetik zeturten (...) gutako bakoitza horma bat ginen apokalipsiaren kontra".

**Itxaro Borda**

Askotan faxismoaren inguruko azterketa eta eretxi soziologiko, historiko zein politikoetan ahaztu egiten jaku aitatzea faxismoa izatez dala misoginoa.

Ardatz dituan legetxe indarkeria, bildur faltearen itxurea, zaurgarritasuna ikusi ezina eta gizonkeriarik erradikalena, arraren kontzeptu eta elementua euren identitatearen oinarri daukie. Gizon toxiko ar armazatuak dira eta ondorioz gorroto ditue gay-ak be. Errazismo eta pobrefobiagaz be beti egiten dabe bat.

Ez da persona edo lider konkretu baten kontua, ideologia politiko horri konsubstanziala jako.

Hortaz, ez da harriztekoa euren erreazismo bortsu andron eskubide eta burrukak egin daben aurrerapena ikusita. Erreakzio hau mundu mailan beste, Espainian,

EHan zein Arratian emoten dabil. Entzun doguz zenbait lider politiko-oren adierazpenak AEB eta Espainian eta jasan doguz pankarta eta pintada feministen kontrako erasoak Arratian.

Kontuan hartu behar da, gainera, oingo faxismoak ez daukala zerikusirik joan dan mendekoagaz. Momentuz demokrazia formalagaz bizi daiteke espazio barriak lortuz; biderkatu egiten dira eskubiderik bako espazioak eta autoritarismo modu barri baterantza daroa gure gizartea, espazio horreke kasu aisladu moduan aurkeztuz (erasoak feminismo eta genero politikai, Catalunya, Altsasukoa, Mediterraneoko hildakoak...). Modu horretan apurka apurka instituzionalizau egiten da eta baita jendartearen txertatu be.

Zinismorako joerak albo batera itxita, uste dot utopiaren beharra daukagula faxismoari aurre egiteko, norabidea marketako. Eduardo Galeanok inoan moduan utopiak ibiltzeko balio dau-eta. Indartu egin behar dogu geurean, adi egon engainau ez gaiezan eta bere kontrako mobimentuen arteko zubiak eregi, beti be bizitzaren aniztasuna eta bizitza bera erdigunean jarritz.

Utopien bila joateko, danok hobeto bizitzeko behar diran aldaketak eragiteko eta faxismoak daukan errealidadea ezkutatzeko joereari aurre egiteko, ilusino, bizipoza, entusiasmoa, onerako aldaketak posible dirala sinistea, aniztasuna baloretzat hartzea, sorodidada, dibersinoia, plazerra, lotura afektibo bigun gizatiarrak, alkar zain-za, bulnerableak garala onartzea... hori guztiori modu militantean bizitea proposatuko neuke hagin misoginoak erakusten jabilkun faxismoaren kontra.

## ZERTZEAN



## LEIRE AGINAGA

## Gabon gaua

**J**uanita 77 urteko emakumea. Gabonak bertan dau dela eta 22 goizean erosketak egitera laguntzeko eskatu dio Jose Ramoni kafesne bi prestatzen zituen bitartean. Senarrak, orain ezin duela eta 24 goizean bertan joango zirela esan dio, biak batera, azkarrago egiteko eta horrela Bilbotik edo bueltatxo bat emango zutela argudiatuz. Juanitak buruarekin baietz egin du. Duela 55 urte ezagutu zuten elkar, eta su hori berriz sentitzeko gogoekin edo ekin dio buruari eta irribarrea azaldu da emakumearen aurpegian. Harrikoa egitera abiatu da, bazkaltzera seme-alabak datozela eta etxea txukun izan nahi duela esanez. Jose Ramon kafesnea esku artean hartuta egongelara abiatu da egunkaria besapean eta betaurrekoak buru gainean pausatuta dituela.

Baba gorriak sutan zeuden eta Juanitak bertan pasatu du goiza, hauek erreko ziren edo beldurrez, zaintzen. Betiko lez, zaintzen. Etxea, jatekoa, senideak, itxura...

24 goiza da, Juanitak senarra esnatu du erosketak egitera joateko eta bigarren honek lagunekin basora joateko geratu dela erantzun dio, bakarrik joan beharko duela eta sentitzen duela lehenago abisatu ez izana.

Autobusa, dendako kola, ebaki epel bat eta etxera.

Heldu da Gabon gaua, arratsaldeko 6rak dira eta senideak ari dira Juanita eta Jose Ramonen etxera

ailegatzen. Lehengusuak beraien arteko txantxa eta adar jotzeekin tabernara egin dute. Afaltzera joan aurreko tragoak, gerora ixilean igaro beharko dituzten eztabaida eta isilune behartuak itotzeko baliatuko dituztela esanez.

Gizonak ere, etxean txorizo erre bi jan eta gero, tabernara mugitu dira kiantzetara handituz apetitua noiz iritsiko zain edo.

Juanita eta Pilar etxean, familiako bi emakume nagusienak. Pilar aulkian jesarrita, vermouthe batekin eta Juanita ere alkoholdu edariarekin baina zutik, amantala soinean eta mahai gainean pateia, langostinoak, entsaladilla, pernila eta laban artxoa. Eguneko lanaren zati bat begi-bistan.

-Ez dit Marenek begetarianoa dela esan ba! Diotsu batak besteari

-Gaur egungo gazteak... badakizu...

Tradizioak hala aginduta berandu heldu dira denak afarira, 5-10 minutu baino ez.

Juanitari aurpegia aldatzen joan zaio esperoko minutuak aurrera zihozten heinean. Pilarrekin berrikerian zeukan musua ilundu egin zaio.

-Amama ez pasatu e! Zeu be vermouthe edaten ibili zara eta!

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**H**iru aste pasau dira dagoeneko, baina urtekerea akorduan daukat oindino. Benetan berezia dan eguna da niretzat. Nok esango eustan oin dala hogeita hamar urte hasitako asmo batek horrenbeste urte beteko zituanik?

Gazte zein zahar, neska zein mutil, profesional zein ez profesional, danok alkartutea da politena. Ibilbideaz disfrutau ostean berba batzuk esan arazo deustazuez aurtengo armozuan, hainbeste gustetan jakun armozuan. Eta bertan esan neban lez, eskerrak emon gura deustuedaz barriro bai argazkian agertuten zarieno, eta etorri ezin izan zinieno.

Ilusino eta gogoagaz egiten diran gauzak arrakastea eukiten dabela esaten dabe, eta guri holangorik ez jaku falta. Motor gainean segidu daigun beste urte askoan. Datorren urtera arte lagunak!

**Pedro Sagarna "Pedri"**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisci.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Olatondegia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zentiloa 101  
R.P.S. 3/06

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPERA  
Bilkaide, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 621 64 83 - 905 88 6 018

**Troka**  
Lanbetearen Eguna  
Lanbetearen Eguna



## IGORRE

# Konponbiderako pausurik ez abenduaren erdian

Abenduaren 16an, Araluceko beharginak jarraituten eben greban eta egoera konponduteko BATZen aldetik batzeako proposamen barik.



Langileak enpresa aurrean.

### Erredakzioa

Hilaren 20rako manifestazioa deitu dabe Araluceko sarrerako atetik arrastiko 17:30ean BATZ Araluce bizirik! lelopean eta Araluceren bideragarritasunaren alde.

Araluce hartzekodunen konkursoan dago eta lanpostuak kentzeako EEE (enplegu erregulazio espediente) martxan da. Araluce BATZ dala eta Araluceko beharginak 141 lanpostu ez galtzeako moduak bilatzeko batzeako eskatzen deusie BATZeko zuzendaritzeari. Zemendiaren 11n batu ziran azkenengoz eta ez eben akordiorik lortu.

Fabrikeyaren ate ondoan, "baina sarrerea oztopatu barik", negu gorriari aurre egiteko txabola bat egin dabe Araluceko beharginak eta han egoten dira lau orduko txandetan, euren lanpostuak defendidu guran. "Uste dogu egoera bideratu daitekela, badagozala 141 lanpostu kentzea bezain muturrekoak ez diran beste planteamentu batzuk. Eta gu BATZeko zuzendaritzegaz edozein egunetan eta edozein ordutan biltzeako prest gagoz" dinoe Araluceko enpresa batzordekoak. BATZek oster, jarkera "zurruna" eta "trokelen bahiketean" egozten deutse Aralucekoai. "Eskaini geuntsen enpresearen jaubetza euro baten truke eta lanak azpikontratatea" dinoe BATZetik. Baita "martira arteko finantziarioa" be.

BATZek zor deutsezala soldatak be salatuten dabe Aralucekoak. Oin greban egon arren, urri bigarren eta zemendiko egun batzuetan "ordaindutako baimena"gaz egozala dinoe batzordekoak.

### Araluce eta BATZ, bat

BATZeko beharginak dirala gogora ekarteaz gainera, Araluce zarratutak arazoak ekarriko deusazala BATZeri epe labur edo ertainean uste dabe Aralucekoak. "BATZen biziraupenerako derrigorrezkoa da Araluceren biziraupena" eta auto gitxi saldu diran urte batzuk pasau badira be, salmenta handiko sasoia heltzeaz dagoala uste dabe. "Aralucek 200.000 ordu ipinten ebazan bezeroentzat eta Araluceko beharginen kalidadea. BATZek Araluce kendu ezker, merkaduan birkokatze momentuan ezin izango dau eskaini, lehen eskaini izan dauana" dinoe.

### Tensino handiko egoera

Tensinoa dago herrian, "zaituta" dago. "Tensinoa egotea normala da 141 persona kaleratzeko asmoa dagoanean. Eta horri gehitzeaz badeutsagu %90 inguru Arratiakoak dirala, oindino normalagoa da tensinoa egotea" dinoe Aralucekoak. Eta "ez gara zenbakiak. BATZek kaleratzea ebatzi dauan 141 persona gara eta 141 familia dagoz atzean" gehitu dabe. Sare sozialetan "gaizkile" moduan tratetan dabezala dinoe.

## ZEANURI

# Berrogeta hamargarrenez, jaiotzea ipiniko dabe Gorbeiaiko kurutzean

1970etik hutsik egin barik, ipini izan dabe jaiotzea Gorbeiaiko kurutzeko hanketako baten. Abenduaren 22an be ipiniko dau, berrogeta hamargarrenez mendizale talde batek. Efemerideak etiketea eskatzen daua eta ezkon jantzia eta korbatea jantzita igongo dira Gorbeiaiko tontorrera (1.482 m.).



### Erredakzioa

Jaiotzea ipintea dibertigarriago egiteko, urtero gai baten inguruan jantzita joaten dira taldeko mendizaleak. Erromatar leginoko soldadu edo tenplario jantzita be igon izan dira kurutzera, besteak beste. Aurten, ezkontzako jantziagaz igotea ebatzi dabe. "Urte asko pasau diranez, bat ez da bere ezkontzako jantzian kabituten eta beste baten jantzia sitsak janda dago. Horregaitik, Edurretako Ama Birjinaren ermitan ezkontza bat antzetea pentsau dogu. Ezkontzako jantzia ez daukan batek apaizarena egingo dau eta besteak andragaiarena" azaldu deutso BEGITURI Josu Beltran Gorbeiaiko kurutzean jaiotza ipinteko

mendizale taldekoak. Konbidauk be egongo dira, ezkontza baterako moduan jantzita. Honeek, eguraldi txarra egiten badau eta jantziak zikindu gura ez badabe, aterpetxean jantzi daikiezala dino Beltranek.

Ospakizuna 10:00etan hasiko da Edurretako Amaren ermitan ezkontzeagaz eta gero, 12:00ak aldera, jaiotzea ipiniko dabe Gorbeiaiko kurutzeko hanka baten.

### Labe Garaietako txapagaz egindako jaiotzea

Hau guztiau, Pablo Valencia Bilbon bizi zan erlojugele nafarrak hasi eban, 1970eko abenduan lehenengoz jaiotzea ipini eban. Laster, bere bezeroetako batek, Txema Sainz-Ezkerrak har-

tu eban lekukoa eta beste zale batzukaz mantenidu dau jaiotza bat ipinteko ohitua. Taldeko gehienak Bilboko Santutxu auzuneak dirala dino Beltranek.

Abenduan ipini eta urtailan kendu egiten dabe. Lehenengo jaiotza, Pablo Valenciaren erlojudendan gordetzen eben eta 1983ko uriolak eroan eben. Gaur egungoa 1985ean egin eben "taldeko artisaubak" Bizkaiko Labe Garaietako txapa galbanizadua erabiliz.

### Mendiz mendi eta Santiago bidean

2014ko urtailean, jaiotzea kentzera joan ziran, 50.eraiko zeozter egin behar zala eta jaiotzea Euskal Mendizale Federazioak argitaratzen dauan Euskal Herriko tontorren zerrendako lehen mailako 596 mendietara igotea ebatzi eben. Horretarako, 197 mendi jarduera egin behar izan ditue, 4 urte, 8 hilabete eta 16 egunetan bananduta.

Ez hori bakarrik, jaiotzea hartuta bitan egin dau Santiago bidea Beltranek. "Lehenengoa bide tradizioaletik, Bide Frantsesa deituz danetik: Donibane Garazitik abiatu eta Santiagoraino, 775 kilometro eginda. Bigarrena, Bizkaia Zubitik Santiagoraino, Gorbeiaiko kurutzetik igarota. Honetan, 705 kilometro izan ziran 16 eguneko ibilaldian".

## ARRATIA

# Enpresa Ideen Lehiaketako sarietako dirua gazteen substantzia bako adikzinoen prebenzinorako izango da

### Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) antolatzen dauan Enpresa Ideen Lehiaketako sarietako dirua geratu dira aurten, epaimahaikideen ustez proiektuak ez eukielako maila nahikorik. Hori dala-eta, Bizkaiko Foru Aldundiak sarietarako emondako 7.000 euroak, substantziarik bako adikzinoak prebeniduteko formakuntza tailerretarako bideratuko dira.

Substantziarik bako adikzinoai

aurre egiteko formakuntza tailerretarako Emoki alkarteak emongo dauz Arratiako institutu bietan eta Zulaibar Ikastegian. Bertan, DBH 4. mailakoak, Batxilergokoak, eta Zulaibarren Erdi eta Goi Mailako Zikloko gazteak parte hartuko dabe. Hamasei gela izango dira guztira, 8 Igorreko Arratia Institutuan, Lemoakoan 1 eta 7 gela Zulaibarren. Guztira, 350 gazte inguru.

Gainera, zentro bakoetan ordu biko formazioa egongo da gura-so eta irakasleentzat.

### Adikzinoak eta emozinoak

Formakuntza tailerretan, sare sozialak, bideojokoak, Internet eta mobilaren erabilpena landuko dira. Baita, adikzino horreek emozinoetan daukien eragina. "Saiatuko gara aztertuten zelango eragina daukan adikzino batek emozinoetan, hazte prozesuan, adoleszentiako garai honetan... eta emozinoak lotuko dogun programa bat izango da" azaldu deutso BEGITURI Almudena Etxebarria AUMko Adikzioen Prebenzio Komunitario Arloko teknikariak.



## DIMA

**Jentiltxu eta Jentili bideoa ikusgai dago Youtuben**

Erredakzioa

ke: <https://www.youtube.com/watch?v=1Nyg-fJS9I>.

Euskerearen Egunaren harira eta Herri Hezitzailearen proiektuaren barruan, Dimestenek eta Dimako eskoleak *Jentiltxu eta Jentili 2019* bideoa grabatu dabe. Bertan eskolako umeak, Ibon Izak eta Kepa Elgoibarrek sortutako kantuagaz jantzen egiten dabe. Edizioa Imanol Garciak egin dau eta helbide honetan ikusi leite-



**ERDU AREATZARA GABONETAKO EROSKETAK EGITERA!**

**AREATZA BONO DENDA**

ORBURU

**EROSKETAK %20 MERKEAGO**

**ORAINGOAN, EROSI ETA GASTATU ALDI BEREAN**

AREATZAKO MERKATARIEN ELKARTEA  
ASOCIACION DE COMERCIANTES DE AREATZA

## ARRATIA

**Astegoiena edurretan pasetako aukerea izango dabe kirolari ez diran andrak**

Erredakzioa

Abenduaren 20tik 22ra programata egoan arren, antolatzaileak, edurretan erraketakaz ibilteko urtekeria martira atzeratzea ebatzi dabe. Jabekuntza Eskolearen programearen barruan dago Ibilbide eroak ekimena eta bertan, "andra mendizale ez kirolariak" hartzean dabe parte. Partaideak, Garazi Santos mendi teknikariaren laguntzeagaz, erraketakaz egingo ditue ibilbide batzuk Pirinioetan. Lehenengo aldia da, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak astegoiena mendian pasetako ekintza bat antolatuten dauana.


**Ibilbide eroak**

Areatzako Maite Artaberren eki-

menez sortu zan Ibilbide eroak, "andra nagi ala sasoian ez dagozanentzat". Artabe konturatu zan, mendi taldeak eskaintzen daben urtekeren exijentzia maila larregizkoa dala batzuek disfrutau dagien eta holan, lagun batzuk batu eta mendi teknikari bategaz jarri ziran hartu-emonetan.

Hilean behin egiten ditue urtekerak. Garazi Santos eta Laura Ruiz mendi teknikariak, diseinatan dabez ibilbide eroak eta urtekeretan mendian ibilteko jakin beharrekoak eta eguneko ibilbidearen ezaugarriak (historia, botanika...) kontetan deutseez partaideai.

2019-2020 ikasturtean, antolatzailak holan eskatuta, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak bere gain

**Otxandiora egindako urtekeria.**

hartu dau ekimena, mendiak beandren ahalduntzean lagunduten dauala eretxita.

## IGORRE

**Kelvion mobilizazioetan lan baldintzak mantenu eta lanpostuak bermatzeko**

Erredakzioa

Igorren dagoan Kelvion Thermaleko beharginak greba egin eben abenduaren 5ean. LAB sindikatuaren arabera, jarraipena erabatekoa izan zan, behargin guztiak egin eben greba eta. Behargin batzuk kaleratu eta soldata murrizketak iragarri ditu enpresa zuzendaritzak.

Siderometalurgiako enpresa honetan, oin dala hilabete bi kanpoko zuzendaritzako kide batek enpresako gerentea ordezkatu eban, "beharginen lan baldintzetan murrizketak ezartzeko asmoz" LABen arabera. Holan, beste neurri batzuen artean, urteko soldatea %20 eta %30 ar-

tean murriztea aurreikusten dala salatu dau sindikatuak.

Beharginen enpresa komiteak proposamen bat egin dau 2020rako. Proposamen horregaz, beharginak ez leukie erosmen ahalmenik galduko eta zuzendaritzari enpleguagazko konpromisoa eta inbersino eta lan anto-

laketa plan sendoa eskatzen jako.

"Enpresako zuzendaritzak kaleratzeak erantzun deutso proposamenari. Kaleratze batek 52. artikuluan dauka oinarria, baja hartzeagaitik lan absentismoa atxakia hartuta".

Enpresa komiteak mobilizazioak jarraituteko asmoa dauka.



## ARRATIA

**Preso, igeslari eta deportaduen eskubideen alde manifestazioa Gabon Zahar egunean Lemoan**

Erredakzioa

Urtero lez, abenduaren 31ko arrastiko 18:30erako, euskal preso, igeslari, eta deportaduen -Iñaki Bilbao eta Tomas Linaza lemoztarrak tartean- eskubideen

aldeko manifestaziora deitu dau Arratiako Kalera Kalera dinamikeak eta Lemoako Bagabiz Badatozek. Manifestazioa Lemoako Intzuntzako plaza gorrian hasiko da eta amaieran ekitalditxo egingo dabe.

Manifestazioaz gainera, hilaren

20an, bertso saioa antolatu da Igorreko Axular Herriko Tabernan preso eta igeslariaren eskubideen alde Oihana Bartra eta Eneko Abasolo "Abarkas" bertsolariakaz.

**Abel Lapatza Iza**

Taxi zerbitzua 24 ordu  
Dima

946 317 252  
608 287 249



## DIMA

### Dimako Udalak peoien lan-boltsea atera dau

#### Erredakzioa

Dimako Udalak peoi lanpostuetarako lan-boltsa bat eratzeko deialdi publikoa egin dau. Izena emoteko epea abenduaren 30era arte dago zabalik. Baldintzak eta eskabideak udaletxean eta web-gunean dagoz.

Lan-boltsakoak aukeratuko dira oposizino-lehiaketa bidez. Lehiaketa fasean kontuan izango dira enplegu eta familia egoerak; baita lanpostuari jagokon lan eta zerginetan esperientzia eta gidatzeko karneta eukitea be. Oposizino fasean, betebeharreko funtzinoakaz zerikusia daukien zenbait proba teoriko-praktiko egingo dira.

Euskereari jagokonean, derigorrezkoa da euskeraz berba egiten jakitea edo 1. Hizkuntz Eskakizuna eukitea.

## ARRATIA

### Caritas Arratiak lau mila euro emon dauz jantoki sozialentzat



Gema Orbe Indautxuko Jantoki Sozialerako batutakoagaz.

#### Erredakzioa

Dirua, Pobreziaren aurkako Egunaren harira egindako ekintzetan jasotakoa da eta Caritas Arratiak, Gema Orbe Indautxuko Jantoki Sozialaren zuzendariari emon eutsan, jantoki sozialak egiten daben lanean lagunduteko.

Arratiako Elizaren iturrien araber, zemendiaren 15ean egindako kontzertu solidarioan 2.146 euro jaso ziran eta hurrengo domekan 1.854 euro batu ziran mezatan.

## AREATZA

### Urkullu Lehendakaria egon zan Areatzako Arratia zentroaren inaugurazino ekitaldian

Oin dala bederatzzi hilabete inguru, gurasoenganako indarkeriagaitik kondenea bete behar daben adin txikikoentzako Arratia zentroa abiatu eben Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak eta Berriztuk, Areatzako Santa Isabel komentuan.



Areatzako Arratia zentroa.

#### Erredakzioa

Abenduaren 2an inaugurazino ekitaldia egin zan eta bertan, Iñigo Urkullu Lehendakaria, Maria Jesus San Jose Lan eta Justizia sailburua, Juan Luis Ibarra EAEko Auzitegi Nagusiko presidentea, Maria del Carmen Adan Autonomia Erkidegoko fiskal nagusia, Vicente Reyes Gobernuaren Bizkaiko ordezkariordea eta Asier Garcia Areatzako alkatea egon ziran.

Momentu honetan 20 gazte dagoz Berriztu irabazi asmo bako erakundeak kudeatuten dauan zentroan, epaileak holan aginduta. Berriztuk, Eusko Jaurlaritzegaz hitzarmena dauka eta 28 urte daroaz Gazte Justizia zerbitzua eskaintzen.

#### Areatza bergizarteratze prozesuan eragile aktiboa

Berrizturen ordezkariak erakundeak aurkeztu ondoren, Asier Garcia Areatzako alkateak hartu eban berbea. Alkateak Areatzako historiaren barri emon eban. XIV. mendean sortua, "uriaren sorrearen errazoi nagusia Gaztela eta Bizkaiaren kostaldea lotzean ebezan bideen kontrola eta garpena izan zan. Holan, Areatzako Sorrera Gutunak jasoten dauan moduan, Areatza izango zan

Arratia osoan, trukean, asteroko merkadua antolatzeko eskubidea eukan uri bakarra. Eta aldi berean, meseta eta kostaldeko merkantzia guztiak bertatik pasau behar ziran. Beraz, gure pribilegioak euki genduzan hasiera baten" esan eban alkateak. Eta 600 urte baino gehiagoko herriaren historia laburbildu eban gero.

Santa Isabel komentuko historia be emon eban jakitera. XVII. mendean sortu zanetik 2006ra arte, klausurako mojak egon ziran han. "Tarte horretan guztian, Gerra Zibilean bakarrik geratu zan hutsik eraikina, moja guztiak atxilotu egin ebezenean". Eta hutsik geratu zan denpora tarterik luzeena, mojak Oñatira joan eta Berriztu bere proiektuagaz agertu zan arte izango zala ziurrenik esan eban alkateak. "Berriztu eta Areatzako Udala 2017ko amaieran batzartu ziran lehenengoz. 2018 amaieran barriz, barriro ipini zan kontaktuan Berriztu Udalgaz, jakin arazoteko Eusko Jaurlaritzegaz hitzarmena daukala gurasoenganako indarkeriagaitik kondenauteko gazteen heziketa eta bergizarteratzeko zentroa kudeatuteko".

Hasikeratik, alde agertu zan Udala. "Areatzako Udaleko gobernu taldeak gizarte politikakaz daukan konpromisoa da bere

ardatz estrategiko nagusietako bat. Eta lehen momentutik sinistu genduan, eta gaur egun be sinisten dogu, Berriztuk eta Eusko Jaurlaritzak aurkeztu euskuen proiektuan". Helburua, horreek gazteorrek Areatzako gizarte, kultura eta kirol bizitzan integretea eta prozesu horretan Areatza eragile aktiboa izatea da alkatearen arabera.

#### Gurasoenganako indarkeriagaitik salaketak gora

Areatzako Arratia zentroa, Eusko Jaurlaritzak, gazte justiziaren arloan kudeatzen dauan heziketa zentroen sarean txertatzen da. Zentro hau espezializauta dago gurasoen aurkako indarkeria salaketengaitik neurri judizialak dituen gazteak hartzeako. "Era berean, aurreikusita dago, genero indarkeriagaitik zigortuko dituen gazteak hartzea" esan eban Maria Jesus San Jose Lan eta Justizia sailburuak.

Bere esanetan, zentro hau beharrezkoa da gurasoenganako indarkeria gero eta gehiago salatzen dalako. Izan be, gurasoenganako eta genero indarkeriagaitik zigorrak 2014an 67 izatetik, 2018an 92 izatera pasau ziran, eta 115 izan ziran 2019ko lehenengo hamar hilabeteetan.

Gainera, gazte honeentzako

zentro espezialdua behar da. Areatzako, 2. mailan katalogauta dago eta adinbakoen epaitegiak ezarritako erregimen ireki eta erdi irekiko neurriak, irmoak zein kautelazkoak, baita hezkuntza taldean bizikidetzakoak be dituen gazteak hartzean ditu. Gurasoenganako biolentzia ez da bat-batean sortzean; apurka-apurka hazten joaten da eta faktore askok eragiten dabe. Holangoetan, "behar-beharrezkoa da esku hartzea lehenbailehen".

#### Lehen zentro espezialdua

Gazte justiziako sistemeak hiru oinarri ditu: lehenik, prebentzinoa; bigarrenik, hezkuntza arloko zigor neurriak, eta hirugarrenik, arau-hausleen gizarteratzea, hain zuzen be. Eta Iñigo Urkullu Lehendakariak "gurasoen aurkako indarkeriak eragindako neurriak bete arazoten espezializautako lehen zentroa" dala Areatzako azpimarratu eban.

Esku hartzeako Eusko Jaurlaritzak zazpi zentrok osotutako sarea dauka. Erregimen irekiko zentro bat Bilbon; erdi-irekiko erregimeneko bost zentro, gehi Areatzako eta erregimen itxiko zentro bat. Areatzako Arratia "zentro barriak aukerea emoten deusku erantzun barriak eskaintzeko, gurasoen aurkako indarkeriak eta genero-indarkeriak eragindako neurriak beteten espezializautako lehen zentroa dalako, tratamendu espezifikoko baten bidez" esan eban Lehendakariak.

Jaurlaritzaren konpromisoa gazte justiziaren eredu hobetuteko ildoan lanean jarraitzea dala be esan eban, prebentzinoan inbertiduz, hezkuntza neurri barriak hartuz eta gizarteratzeko aukerak bultzatuz.

Areatzan dagozan gazteak Oinarritzako Lanbide Heziketako ikastaroak daukiez bertan, *Sukaldaritza* eta *Eraikinen mantentmentua*, hain zuzen be, baina kanpoko baliabideak be erabilten ditue eta euren institutuetan jarraitutea bultzatzen dabe Berriztuko pedagogoak.


Ekitaldia amaitzeko, zentroan dagoan gazteetako batek, guztien izenean, opari bat emon eutsan Lehendakariari.

#### Araluceko langileak protestan

Bitartean, komentu kanpoan, Lehendakaria noz urtengo zain, Araluceko beharginak egoazan pankarteagaz, Araluce ez zarratuteko eskatuten.



# SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU



Basoak garbitzeko  
makineria



## ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

# ALKIZABAL

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDIETA ETA INDUSTRIARAKO  
MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BOLUNBURU POLIGONOA  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)





## aterpe Jatetxea

### Errukiñe menua

*Ezkur urdaiazpiko eta solomo iberikoak  
Oilasko, espinaka, udare eta parmesano ensaladea  
Etxeko foie-micuit terrina jengibre pureagaz*

*Otarrainxkakaz betetako lebatza saltsa amerikarrean*

*Etxeko arroz-esnea*

32€

### Iturrimaur menua

*Ezkur urdaiazpiko eta solomo iberikoak  
Eskabetxautako galeper ensaladea ospinkiakaz  
Foiea plantxan, Martini erredukzino eta frutu gorriakaz*

*Txipiroi freskoak plantxan kipula eta piper berdeakaz  
Entrekot laminak piper morroi erreakaz*

*Limoi-krema etxeko mazedoniagaz*

44€

### 10. urteurren menua

*Idar eta mendafin txupittoa  
Onddo konfitauak arrautza gorringo eta patata pureagaz  
Eskabetxautako muskuiluen fideua*

*Lupia plantxan alga pistoagaz  
Arkume terrina cous-cousagaz*

*Intxaur-saltsea Idiazabal bitsagaz*

38€

### San Bartolome menua

*Leongo zezina, errukula eta parmesanoagaz  
Itsaski-salpikioia  
Onddo konfitauak arrautza gorringo eta patata pureagaz  
Etxeko foie-micuit terrina jengibre pureagaz*

*Zapo-xerra plantxan  
Txahal azpizuna goarnizinoagaz*

*Brioche ogi-torrada izozkiagaz*

49€

BEZa barne - Erreserba, gixienez 48 orduko aurrerapenagaz egin behar da  
Informazioa eta erreserbak 94 657 27 05 eta [info@hotelbalnearioareatza.com](mailto:info@hotelbalnearioareatza.com) helbidean  
Gixienez 4 lagun - Lehenengo platerak mahai erdira zerbitzatuko dira - 4 laguneko botila bat ur eta ardao botila bat barne  
Kristalagaz inguratutako terraza estalia, erabilgarri badago - Gertakari berezietarako tartak, konsultau gehigarria - Merkaduaren arabera  
[www.hotelbalnearioareatza.com](http://www.hotelbalnearioareatza.com)





## GABONAK

# Kultura jarduera ugari Gabonetan

Arratia, Ubide eta Zeberioko udalak eta alkarteak, ume eta nagusientzako kultura jarduera ugari prestatu ditue Gabon sasoirako. Olentzeroren etorrerea ez da inon faltauko eta Errege Magoen Kabalgatak be egongo dira Areatzan, Bedian eta Igorren. Umeak olgetako aukera parebakoa izango dabe Umeentzako Gabonetako Parkeetan eta nagusiak, batez be, kontzertuak, antzerkia eta kirol jarduerakaz gozatuko dabe.

**Erredakzioa**

## Arantzazu

**Abenduak 24, martitzena**

11:30ean, plazan auzoetatik kantari Olentzero eta Mari Domingigaz; 13:00etan, Olentzerok umeai harrerea, ardaa eta pastela egongo dira; 19:00etan, eleizportalean, euskal presoak etxean egoteko 564 kantau.

**Abenduak 27, barikua**

10:00etatik 12:00etara, Maddigaz patinetan frontoian. Izena udaletxean emon 23a baino lehen.

**Abenduak 28, zapatua**

19:00etan, Txoborro magoa herriko tabernan; 20:00etan, bingoa eta kopaua.

**Abenduak 29, domekea**

11:00etan, umeentzako Scape Room, errealidade birtualeko be-taurrekoak eta jolasak frontoian.

**Urtilak 4, zapatua**

Herri urtekerea Gasteizera: izotz pista, katedrala... Izena emon udaletxean hilaren 23a baino lehen.

## Areatza

**Abenduak 22, domekea**

10:30ean, eleiza aurrean. AKKBko urtekerea Euskaldunara, Bilboko

Musika Bandaren *Begiradak haurtzarotik* ikuskizunera. Konbidauk: Marife Nogales mezzosopranoa, Bilbao Musikako haur abesbatza eta Bilboko Koraleko haurren abesbatza.

**Abenduak 24, martitzena**

11:00etatik 13:00etara, tailerrak plazan; 13:00etan, Olentzero eta Mari Domingiren harrerako jantzearen entsegua; 17:00etan, kalejirea herrian zehar, plazatik urtenda; amaieran, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea eta jantzan egin plazan. Ostean Gortazar Jauregian egongo dira. Guraso Elkarteak antolatuta.

**Abenduak 26, eguena**

19:30ean, Demode Quartet taldearen kontzertua eleizan.

**Abenduak 30, astelehena**

20:00etan, Areatzako Bandaren urte amaierako kontzertua. Eleizan.

**Abenduak 31, martitzena**

09:00etan, eleiza aurretik urtenda Lamiño Kirol Klubak antolatuta Urrekoatxa eta Ilunbera mendi urtekerea. Saldea, txanpana, gaztaia, pernila eta txorizoa egongo dira.

**Urtilak 2, eguena,**

19:00etan, *Artzaintza Gorbeian. Milaka urteko lanbidearen iragana, oraina eta etorkizuna* dokumentala

Udaletxeko Areto Nagusian.

**Urtilak 5, domekea**

18:30ean, Erregetako Kabalgatea. Karpon hasita eguraldi ona egin ezker, ostean plazan.

## Artea

**Abenduak 23, astelehena**

11:00etatik 14:00etara, Gabon ekintzak ludotekan; 20:30ean, Evening Prayer Gospel taldea Kultur Etxean.

**Abenduak 24, martitzena**

11:00etatik 14:00etara, Gabon ekintzak ludotekan; 17:00etan, Olentzerori ondo etorria. Plazatik hasi eta auzoz auzo abestu; 19:00etan, Mari Domingi eta Olentzerori harrerea.

**Abenduak 26, eguena**

11:00etatik 14:00etara, Gabon ekintzak ludotekan.

**Abenduak 27, barikua**

Gabonetako Umeen Parkera urtekerea 4 eta 14 urte bitartekoentzat.

**Abenduak 28, zapatua**

18:00etan, orientazio lasterketa eta askari popularra plazan.

**Abenduak 30, astelehena**

11:00etatik 14:00etara, Gabon

ekintzak ludotekan.

## Bedia

**Abenduak 17, martitzena**

Hilaren 20ra arte, 16:30etik 19:30era, Gabonetako Postal Lehiaketako marrazkiak batu liburutegian; 19:00etan, Arratiako Musika Eskolearen kontzertua eleizan.

**Abenduak 20, barikua**

Eleizalde Jubilatu eta Pentsionisten Elkarteak antolatuta, Gabon Jai Solidarioa frontoian. 17:00etan, atek zabaldu, ikastaroan egindako Gabonetako postal eta eskulenen erakusketea, pintxo-potea, perkusino tailerra familian. Motxilak eta ludotekako tailerretan egindako gauzak salgai; 18:45ean, gimnasia erritmiko erakustaldia; 19:00etan, Jauziak taldearen eta umeen eskal jantzen erakustaldia. Etxetik janari pakete bat edo euro bi personako eroan behar da. Jatekoa, Elikagaien Bankurako izango da eta dirua Ekuma: Bissau Gineako osasun lankidetzat proiekturako.

**Abenduak 23, astelehena**

17:00etatik 19:00etara, Gabonetako tailerrak ludotekan.

**Abenduak 24, martitzena**

12:30ean, Olentzero bila joateko batu plazan; 13:30ean, gaztaina errete plazan.

**Abenduak 26, eguena**

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Gabonetako Parkea frontoian.

**Abenduak 27, barikua**

10:00etan, urtekerea Gabonetako Umeen Parkera. Bazkaria eta merienda eroan behar dira.

**Abenduak 30, astelehena**

17:00etan, zinea *Ploey. Ez duzu inoiz bakarrik hegan egingo* pelikulea ludotekan.

**Urtilak 3, barikua**

17:00etan, urtekera familiarra Arriaga Antzokira *Ali Baba eta berrogei lapurrak* operara.

**Urtilak 5, domekea**

18:30ean, Erregeen Kabalgatea,

aurretik txokolata bananduko da.

## Dima

**Abenduak 18, eguaztena**

18:30ean, Andraizeak antolatuta, Jone Ibarruriren berbaldia *Zer jaten dogu?* Elikagaien alde nutrizionala eta ingurugiroa eta ikuspuntu soziala. Abaroa aretoan.

**Abenduak 20, barikua**

18:30ean, Juan Manuel Etxebarria eta Gontzal Mendibilen berbaldikantaldia *Bittor eta biok* liburuaren aurkezpena. Zamakola alkartean.

**Abenduak 24, martitzena**

11:30ean, Olentzero eta Mari Domingi.

**Abenduak 26, eguena**

City Jump eta Gasteizera urtekerea 2002 eta 2007 bitartean jaiotakoentzat.

**Urtilak 5, domekea**

Dimako koruak egoitza bietan emonaldia eskainiko dau.

## Igorre

**Abenduak 18, eguaztena**

19:00etan, Arratiako Musika Eskolako kontzertua *Musikatu bizitza eta urte barri on!* Lasarte Aretoan.

**Abenduak 22, domekea**

18:00etan, Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen sari banaketea. Oihan Vegaren *Zergaitik praktikatzen dugu sexua gaztekeraz?* bakarriketea eta Ismael Pereiraren *showa*. Publikoaren artean jostailu erotikoak zozketatuko dira Lasarte Aretoan; 19:00etan, Arratiako Bertso Eskoleak antolatuta, Irudibertsotan, Onintza Enbeita, Aitor Sarriegi, Alaia Martin eta Igor Elortza. Marrazkilaria: Igor Menika. Lasarte Aretoan.

**Abenduak 23, astelehena**

18:00etan, Arantzarteko gazteen jantza saioa kiroldegiko frontoian.

**Abenduak 24, martitzena**

12:00etan, Badator Olentzero. Joan baserritar jantzita. Mikeletik.

**Abenduak 26, eguena**

20:15ean, AMEk antolatuta, Alazne Etxebarria eta Mikel Bermejoren *MonoloKos*. Ondoren Gabonetako 3 otzararen zozketea.

**Abenduak 27, barikua**

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea eta Zaztaparrak-en tailerak aterpean.

**Abenduak 28, zapatua**

20:00etan, Luis Iruarizaga Abesbatzaren Gabonetako kontzertua



Lasarte Aretoan.



**Abenduak 29, domekea**  
17:00etan, zinea *La familia Addams*; 19:30ean, *La trinchera infinita* Lasarte Aretoan.

**Abenduak 30, astelehena**  
17:00etan, Jostailu Azokea, Zaztarrak eta Maratugaz Kultur Etxean.

**Abenduak 31, martitzena**  
11:00etan, izen emotea; 11:30ean, X. San Silbestre lasterketea. Mozorrotruta joan.

**Urtailak 2, eguena**  
11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Motxoganen tailerrak aterpean.

**Urtilak 3, barikua**  
20:00etan, Yllana Teatroaren *Gag movie* Lasarte Aretoan.

**Urtilak 4, zapatua**  
18:00etan, antzerkia *Mari Errauskin* Lasarte Aretoan.

**Urtilak 5, domekea**  
18:30ean, Erregeen Kabalgatea Mandoia kaletik.

## Lemoa

**Abenduak 19, eguena**  
10:00etan, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta, Gaztaina eguna ume eta gurasoentzat eskolan; 17:00etan, Udalak antolatuta, Marrazki Lehiaketako jaiak. Margo-ipuinak saioa Ludotekan.

**Abenduak 20, barikua**  
10:30ean, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta, Olentzero eta Mari Domingi eskolatik udaletxera.

**Abenduak 22, domekea**  
Udalak antolatuta, ludotekako urtekerea Gasteizera 2008 eta 2011 bitartean jaiotakoentzat.

**Abenduak 24, martitzena**  
11:00etan, Olentzero eta Mari Domingi Lemoatik.

**Abenduak 25, eguaztena**  
Ganzabal Mendi Taldearen, mendi urtekerea Urkiola-Anboto (1.331 m.).

**Abenduak 26, eguena**  
11:00-14:00 eta 17:00-20:00, Gabonetako Haur Parkea kiroldegian; 19:30ean, Bentzaharreko mutiko alaiak kantujiran. Kresalatik hasita.

**Abenduak 30, astelehena**  
Lemoako Udalak antolatuta, lu-

dotekako urtekerea Bilbora 2012 eta 2015 bitartean jaiotakoentzat.

**Abenduak 31, martitzena**  
12:30ean, Eneko Zamalloa Memoriala. Lemoako IX. Gabonetako Lasterketea. Elizondon.

## Harriketarrak Gazte Asanblada

**Abenduak 22, domekea**  
18:00etan, Puski eta Txuruskiren umeentzako ikuskizuna.

**Abenduak 24, martitzena**  
18:30ean, Olentzero joango da

Gaztetxera.

**Abenduak 27, barikua**  
Txatxarrike Egune.

**Abenduak 29, domekea**  
20:00etan, Jausiko haz eta Pintxo Lehiaketea.





**Abenduak 30, astelehena**  
18:00etan, *Mandala* tailerra.

## Ubide

**Abenduak 24, martitzena**  
19:00etan, Olentzero plazan.

## Zeanuri

**Abenduak 20, barikua**  
18:30ean, bertso musikatuak. *Ez da kasualitatea*, Alaia Martin, Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Oihana Iguaran bertsolariakaz. Kultur Etxean.

**Abenduak 22, domekea**  
18:30ean, *Gorbeiatik Gorbeara*, Elena Ocasar eta Aitor Intxaurrearen ikus-entzunezkoa. Kultur Etxean.

**Abenduak 23, astelehena**  
19:00etan, Gabonetako kontzertua. Zeanuriko korua eta txistulariak. San Isidro eleizan.

**Abenduak 24, martitzena**  
Olentzero dator. 11:30ean, plaza apaindu; 17:00etan, Olentzeroren etorrera.

**Abenduak 26, eguena**  
19:00etan, identitate sexualduen gaineko berbaldia Iñaki Goñiren eskutik. Kultur Etxean.

**Abenduak 27, barikua**  
18:30ean, Gontzal Mendibil eta Iñaki Garcia Uribegaz *Gorbeia kontuak eta kantuak*. Kultur Etxean.

**Abenduak 28, zapatua**  
17:00etatik aurrera, pelotea. Bigarren Mailako Binakako Txapel-

ketako kanporaketea. Frontoian.

**Abenduak 29, domekea**  
18:30ean, *Artzaintza Gorbeian. Milaka urteko lanbidearen iragana, oraina eta etorkizuna* dokumentala. San Isidro eleizan. Aurretik Argazki Lehiaketako sariak bananduko dira. Erakusketea 24 eta 31n goiz eta arrastiz udaletxe azpiko gelan.

**Abenduak 30, astelehena**  
18:30ean, Gorbeia Suzien 2020. Skyrunner World Series-eko lasterketea. Oihana Azkorbebeitia korrikalaria eta Iñaki Uribetxebarria Euskal Selekzinoko hautatzailearen berbaldia. Kultur Etxean.

**Abenduak 31, martitzena**  
11:00etatik aurrera, San Silvestre lasterketea. Taloa eta saldea.

**Urtailak 3, barikua**  
09:00etan, Iruñeara urtekera.

## Zeberio

**Abenduak 17, martitzena**  
Hilaren 31ra arte, *Arratiako Tranbia* erakusketea. Udaletxean.

**Abenduak 18, eguaztena**  
18:00etatik 20:00etara, Errementari museora bisita.

**Abenduak 20, barikua**  
18:00etan, ballet erakustaldia plazako frontoian; 19:00etan, *Artzaintza Gorbeian. Milaka urteko lanbidearen iragana, oraina eta etorkizuna* dokumentalaren aurkezpena udaletxean.

**Abenduak 22, domekea**  
14:00etan, euskal jantzen erakustaldia plazan; 20:00etan, kontzertua, musika kubatarra Ermitabarriko San Antonio ermitan.

**Abenduak 23, astelehena**  
20:00etan, Xabier Madariaga Ur Handitan *Mobiladun umeak* udaletxean.

**Abenduak 24, martitzena**  
17:30ean, Olentzeroren etorrera Ermitabarritik plazara; ondoren txokolatea plazan.

**Abenduak 26, eguena**  
12:00etan, Etxazo auzoko jaiak. Mezea San Esteban ermitan, herri kirolak...

**Abenduak 27, barikua**  
20:30ean, Bola jaurtiketea eta taloak Ermitabarrin.

**Abenduak 28, zapatua**  
12:00etan, San Tomas zaharra Barbatxaon.

**Abenduak 30, astelehena**  
18:30ean, Juan Manuel Etxebarriaren berbaldia *Euskeraren transmisioaren garrantzia* udaletxean.

**Abenduak 31, martitzena**  
10:00etan, Austarri Mendi Taldeak antolatuta, Tontorrandin agur 2019 urteari. Bolanderak, txanpana, ha maiketakoa... plazatik urtenda.

**Urtailak 3, barikua**  
19:00etan, zinea euskeraz *Leo da Vinci: Mona Lisa misioa* udaletxean.

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko

94 631 73 14 eta 649 979 112

begitu@topagunea.com

**begitu**  
arratia ubide zeberio



funerariagalarza.com

egizu lo lasai, geu arduratuko gara zeure loaz

- Beilatokia
- Errausketa-labea
- Gorpuak eroan zein ekarri estatu barruan eta atzerrian
- Lora-apaingarrien salmenta
- Gestino administratiboa
- Eskelak, doluminak eta esker onak online

■ **Bulegoa**  
Zabalea, 51 - 48960 Galdakao  
t. 944 570 395 (24 ordu)  
f. 944 575 043  
e. info@funerariagalarza.com

■ **Dimako tanatorioa eta errausketa-labea**  
Ziarrusta industrialdea, 39

■ **Galdakaoko tanatorioa**  
Zabalea, 24





## ZURE ZERBITZURA

Avia guztira 192 gasolindegi  
Avia Adenor 35 gasolindegi

**ADENOR Igorre**  
[www.aviaenergias.es](http://www.aviaenergias.es)

Explanada Punta Ceballos z/g  
48508 Zierbena (Bizkaia)  
Tel. +34 944 130 159

**Banaketa**  
**Berogailuetarako**  
**gasolio zerbitzua**



## GURE BIHOTZA

Operazio zentroa  
Bilboko Portu Autonomoan





# begitu

arratia ubide zeberio

**2019AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN!**  
**URTEA AMAITU ARTE BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2019an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?  
Aurreko hamabostaldiko irabazlea Garazi Santos izan da.

Hori egiteagaitik Areatzakoko Bainuetxean lagun birentzako zirkuitu termala + buffet menua zozketatuko dogu hurrengo hamabostaldian **Begitu-lagun** barrien artean.



# BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.**

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuota:  35€  55€  75€

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.



\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Orain zure entzumenaren osasun azterketa **Olaetxe Optika Zentruan**

**2** audifono Adimen Artifizialarekin + Arreta Plana

**GUZTIA BARNE DUEN PLANA DAUKAGU:**  
Eta gozatu adimen artifiziala duten munduko audifono bakarrak  
**15 egunez probatu, konpromisorik gabe**



Audifono adimentsuak WIDEX EVOKE



Pilak dohainik



Bilizta osoan bisitak doan



Apurketa, galera edo lapurreta atsegurua



**Olaetxe**  
OPTIKA ZENTRUA

Sabino Arana Kalea, 3  
Igorre  
T. 946 577 003



CENTRO AUDITIVO OFICIAL WIDEX






**DIZPLINA ANITZEKO ZENTRUA**

- Psikologia
- Logopedia
- Fisioterapia
- Ulermen tailerra
- Jarrera arazoak
- Emozioen tailerra
- Psikomotrizitatea
- Adimen emozionala
- Trebetasun sozialak
- Estimulazio goiztiarra
- Eta askoz gehiago...

652 702 650 / 672 481 370  
Lehendakari Agirre 4 · Igorre  
[maite.eileke@gmail.com](mailto:maite.eileke@gmail.com)



## MENDIA

## Abenduan Antartikara espedizinoa egin ostean, Everest neguan igoteko hirugarren saiakerea egingo dau Txikonek

Bi edo hiru espedizino baten. Lorea Bilbao Foru diputaduak esan eban moduan, Alex Txikon eskalatzaile lemoztarrak gauzak beste modu baten egiten ditu eta bere erronkak ez dira alpinista gehienek.

## Erredakzinoa

Oingoan Antartikako peninsulan ibilbide barriak esploratu eta urtailean Nepalerantz abiatuko da Ama Dablam eta Everesteko tontorrek zapaltzeko asmoagaz.

Baina espedizino bi baino "hiru abentura" dirala esan eban Txikonek. Izan be, bidea be abentura bat da. Nepalera kaminoz joango dira taldeko batzuk, eskaladarako materialea eta hango Himalaiako sarbidean bizi diran hainbat familiarentzat Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) eskaintako hogei eguzki-labe eroaten. Hamaita herrialdeetatik pasauko dira 25 egunetan Katmandura helzteko.

## Antartikan bide barriak esploratu

Beste talde bat Antartikarantz abiatu zan abenduaren 10ean. "Lau lagun joango gara harantza. Malvina irletan, itsasoa ondo egon ezker, 14an hartuko dogu itsasontzia. Bizpahiru eguneko trabesia izango da munduko itsasorik zakarrenean" azaldu eban Juanra Madariaga espedizinkideak. Gero, peninsula Antartikoan, zeharkaldia oinez egin eta aukeraturako hainbat menditara hurre-ratuko dira, mendiak eskalatzera. Igokieran ibilbide barriak zabalduen saiatuko dira eta jeitsierak, eskietan egiten. Horretarako lagun eskiatzaile batzuk be joango dira eurokaz.

## Himalaia

Urtailean 7an etxera bueltatu eta 9an Nepalerantz abiatzeko asmoa dauka Txikonek. Everesteko tontorra zapaldu gura dau eta oingoan lortuko dauala uste dau lemoztarrak. Izan be, 2017 eta 2018ko saiakeretan eta neguko beste espedizinoetan "asko ikasi" dabela dino. Nepal, bera Antartikoan egoan bitartean hara autoz joandako taldeagaz egingo dau topo. Alkarregaz, Lukla herri-tik Ama Dablameko kanpalekura joango dira, tontorra egin eta gero Everesteko tontorra zapaltzeko saiakerea egiteko.

Tontorra zapaltzen saiatuko dan taldea, Alex Txikonek, Oscar Cardok, Jonatan Garciak, Chhiji Nurbu Sherpak, Pechhumbé Sherpak eta Tenjen Sherpak osotuten dabe.

## Zientzia eta teknologia

Antartika eta Everesteko kanpamentuetan, eguzki plakak ins-



talauko dira, eta espedizinoak azterketa topografiko eta meteorologikoak egingo ditue droneak erabiliz. Argazki analogikoak be egingo ditu espedizinoak dokumentetako Diego Martinez argazkilariak, hango bizipenak hobeto transmitidu guran. Argazki horree-kaz, bueltan erakusketea eta liburu bat egiteko asmoa dago.



Txikon Bedian egindako aurkezpenen.

## AZKOREA

## Julian Larreak 90 urtegaz kana bateko enborra moztu eban

## Erredakzinoa

Abenduaren 1ean izan zan Dimako Axpe Goikoan. Lehenago be, 80 urtegaz, kana bateko (2,50 m.) enborra moztu eban, inok egin bakoa. Gero 85 urtegaz be lortu eban marka hori egitea eta 90 urtegaz be egingo ebala esan eban. Hori dala-eta, jaialdia antolatu eben Axpe Goikoa jatetxean eta bertara ikusle asko eta Euskal Herriko azkolari txapeldunak bertaratu ziran. Eta Julian Larreak ezinezko emoten dauana lortu eban, 90 urtegaz kana bateko enborra mozte. 57 minutu eta 6 segundotan egin eban lana.



## PELOTEA

## Emakume Master Cup eta Bizkaia Torneoa irabazi dauz Ainhoa Romerok

Abenduaren 13an jokatu eban Lemoan Emakume Master Cupeko 16 urte azpikoen finala Ainhoa Romero pelotari lemoztarrak Aisha Etxeberriaren kontra 22-7 irabaziz.

## Erredakzinoa

Hamabost egunetan, txapel bi lortu ditu. Izan be, zemendiaren 30ean, lera Agirregaz batera II. Bizkaia Txapelketako bikoteen finala irabazi eban.

Pelotari gazteak Lemoako Institutuan ikasten dau eta Arratia futbol taldeko Kadete mailako jokalaria be bada.

**2019 sano urte ona izan da, ez da? Bizkaia Torneoan txapelduna, Master Cupeko txapela...**

Bizkaia Txapelketan oso urduri

hasi nintzan, konfiantza barik, baina atzenengo partiduak oso gustura jokatu nebazan eta finalan egin neban partiduagaz sano pozik nago. Ierak be asko lagundu eustan. Biok sano torneo ona egin dogula uste dot.

2019an be, baina aurreko denporaldian, jokatu neban Bizkaiko finala baina ez neban irabazi.

**Noz hasi zinan pelotan? Zein izan da zure ibilbidea?**

Zazpi urtegaz hasi nintzan pelotan Lemoako Pilota Eskolan. Oin arte mutilakaz ibili naz jokatu eta aurtan hasi naz Amaia Aldaygaz

entrenetan. Ander Elezkano dogu entrenatzaile.

Txikitatik izan naz mutilakaz jokatu eban neska bakarra. Bikoteetan be mutilakaz. Neska batzuek kontau deuste eurak arazoak euki dabezala mutilakaz, baina nik ez dot arazorik izan. Oso gustura jokatu izan dot.

Dana dala, kadete lehenengo urtetik aurrera (14 urte) ezin da mutilakaz konpetidu eta hasi nintzan neskekaz konpetiduten. Hasikeran, mutilakaz entrenatu eta neskekaz konpetiduten neban eta gero Amaia Aldaygaz hasi nintzan entrenetan.

**Datorren urteari begira, zer lortu gura dozu?**

Lehiaketa asko jokatu gura dodaz eta maila ona emon. Eta irabazi ezker, itzell! Ezpabere maila altu baten jokatu. Oingo moduan entrenetan jarraitu gura dot eta txapelketak jokatu.

**Eta etorkizunari begira, gurako zeunke profesionala izan? Pelotatik bizi?**

Ez dakit. Futboleak be jokatu dot Arratian eta... Baina euki ezker aukerea profesionala izateko, jakina!



Ainhoa Romero.



## ZIKLO-KROSA



Felipe Orts.

## Felipe Orts-ek eta Lucia Gonzalezek irabazi eben Igorreko 43. Ziklo-krosa

### Erredakzioa

Igorreko Ziklo-kroseko Elite mailako gizonen podiumera, Felipe Orts Lloret, Kevin Suarez Fernandez eta Ismael Esteban Agüero igon ziran. Andrazkoen artean, Lucia Gonzalez Blanco izan zan azkarrena, Aida Nuño Palaciok egin eban bigarren eta Junior mailako Olivia Onesti gaztea izan zan helmugara ailegau zan hirugarrena. Aurten Igorrekoa, Euskadiko Federazioaren ziklo-krosaren egutegiko hamahirugarren proba eta C2 mailako nazioarteko lasterketa (UCI) izan da.

Euria egin eban abenduaren 8an Igorren eta lupetzez betetako zirkuitua ez zan samurra izan txirindularientzat. Leku batzuetan, ia erruda erdiraino sartzean zan bizikletea. Orts, Espainiako txapel-duna hasikeratik ipini zan aurrean eta ordubete, minutu bi eta 24

segundotan amaitu eban proba, Suarez bigarrenari 48 segundo aterata. Bigarrenak hirugarrenari 18 segundo atera eutsazan.

Oindino handiagoa izan zan Gonzalezek, Nuño bigarrenari atera eutsan tartea. Izan be, irabazlea, asturiarra baino minutu bat eta 25 segundo lehenago heldu zan helmugara. Hirugarrena, Onesti, 16 urteko txirindularia frantsesak, 30 segundo gehiago behar izan ebazan proba amaituteko.

Julen Zubero Elite mailako arratiarrak, hamabigarren egin eban Igorren.

### Beste kategoriak

Junior gizonen podiuma, Igor Arrietak, Kevin Pezzok eta Igor Cassolek osatu eben. Kadete mutiletan barriz, Ivan Gomar, Pablo Calvo eta Ivan Madinak. Nesketan, Maira Modenes, Leire Trujillano eta Claudia Perezek.



Lucia Gonzalez goiko argazkian.

## MENDIA

## Gorbeia Suzien Mendi Lasterketan izen emotea urtailaren 1ean zabalduko da

2020ko Gorbeia Suzien urri lehenengoaren 27an izango da, baina izen emotea urtailaren 1ean zabalduko da.



### Erredakzioa

Lasterketeak 32 kilometro eta 2.400 metroko desnibela dauka. Parte hartu gura dauanak [www.gorbeiasuzien.eus](http://www.gorbeiasuzien.eus) helbidean emon behar dau izena.

Lasterketea Migu Skyrunners

World Series barruan dago, munduko mendi lasterketa inportanteenetakoak batera. Izan be, hiru kontinente eta 13 herrialde-tako 17 lasterketak osotuten dabe zirkuitu hau. Lasterketa bakotxean korrikalariak puntuau egiten dabe eta atzenengoan, gehien puntuau daben 60 korrikalariak hartzean dabe parte, zirkuituko onenak. Lau lasterketan, puntuazino bikotxa lortzean dabe korrikalariak eta Gorbeia Suzien da euretako bat. Puntuazino bikotxakoak super sky probak deitzean dira. Zeanurikoa izango da finalurreko azkenengo super sky erako proba.

Guztira 600 korrikalari hartuko dabe parte. Urtailaren 31n, zozketa bidez, bananduko dira dorsalak. Antolakuntzak andren parte hartzea sustatu gura dau eta horretarako 100 dorsal gordeko ditu. Beste 125 dorsal eliteko kirolarientzat izango dira.

2020ko edizinoan, barriro be lasterketa laburra egiteko aukera egongo da, 21 kilometrokoa. Honetan parte hartzeako izena emoteko epea zezeilaren 3an zabalduko da eta dorsalak amaitu arte egongo da zabalik.

### Babesle ofizial barria

Gorbeia Suzien 2020 lasterketeak babesle ofizial barria izango dau. Oin arte, hainbat urtetan, Ternua izan bada be, 2020an Salomon izango da. Mendian ibilteko eta galapan egiteko oinetako eta erropa etxea.

## PELOTEA

## Arratiar bi Bankoa-Diario Vascoko Pelota Txapelketako finalean

### Erredakzioa

Amaia Alday pelotari dimoztarrak eta Lander Erkiaga zeanuriztarrak abenduaren 22an jokatu dabe finala Zarautzen. Alday, Leire Garainen kontra neurtuko da, eta Erkiaga eta De la Fuente nafarrak osotutako bikoteak, Alberdi eta Morgaetxebarria izango ditu aurkari. Diario Vasco Txapelketea eskupelota ez profesional mailako txapelketarik garrantzitsuenetakoa da.

Txapelketan hiru maila dagoz: mutiletan bi eta nesketan bat.

Neskak banaka, lau eta erdian jokatuten dabe eta mutilak binaka Gazte mailan eta 23 urte azpikoan.

### Finalerdiak

Abenduaren 7an, Donostian jokatuta eban finalerdia Aldayk, Olatz Arrizabalagaren kontra eta dimoztarrak 17-22 irabazi eban. Oso partidu ona egin eban Aldayk, 6-16 ipini zan, eta gero markagailuan Arrizabalaga hurreratu egin zan arren, dimoztarrak nagusitu jakon.

Abenduaren 1ean, Erkiagak eta De la Fuente, Ariztegi eta Mikel Etxeberriari 22-13 irabazi eutseen Tolosako Beotibar frontoian.



Amaia Alday eskoian.



**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

**IZAN GINAN...**

**...BAGARA ETA IZANGO GARA**





## IPUIN EROTIKOEN LEHIAKETE

**Euskal Herri mailako Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketako irabazleak jakitera emongo dira hilaren 22an sari banaketa ekitaldian**

Ekitaldia Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan izango da 18:00etan. Sari banaketeaz gainera, Oihan Vegaren umorezko bakarrizketa eta Ismael Pereiraren ikuskizuna egongo dira. Zuriñe larrituk aurkeztuko dau ekitaldia.

**Erredakzioa**

Hiru sari emongo dira. Irabazleak 600 euroko saria izango dau, bigarrenak 400 eurokoa eta Arratiako narrazio sarituaren egileak 200 euro jasoko ditu. Irabazleak nortzuk izan diran ekitaldian bertan emongo da jakitera. Egileak,

Illart Gumuzio Igorreko alkatea, Irene Bilbao Zertu Kultur Elkarte-ko presidentea eta epaimahaikideren baten eskutik jasoko ditue sariak.

Arratiako Kalenturak, momentu honetan Euskal Herri mailako euskera hutsezko Ipuin Erotiko Lehiaketa bakarra da.

**Ekitaldia**

Ordu erdi inguru iraungo dau Zuriñe larrituk gidatuko dauan ekitaldiak. Bertan, saria emoteaz gainera, publikoari barre eragiteko asmoa daukan saio bat egongo da. Izan be, Oihan Vegak zergaitik jotzen dogun narraua erdaraz azalduko dau umorezko bakarrizketa



baten. Aurretik, Ismael Pereirak be igongo dau aretoko tenperatura *show* original batez. Eta loteria eguneko iluntzea biribil-

tzeko, jostailu erotikoak zozketatuko dira publikoaren artean, klitori xurgailua eta masturbatzeko bi-bragailua, hain zuzen be.

## FILMA

**Gorbeiko pastoreak protagonista dituan filma aurkeztuko dabe Areatza, Zeanuri eta Zeberion**

Jose Luis Urrutiaren *Artzaintza Gorbeian. Milaka urteko lanbidearen iragana, oraina eta etorkizuna* dokumentala aurkeztuko dabe abenduaren 20an, 19:00etan, Zeberion udalarekin; 29an 18:30ean Zeanuriko San Isidro eleizan eta urtailaren 2an, 19:00etan Areatzako Udaleko Areto Nagusian.

**Erredakzioa**

Filmak lanbide zahar honen historia kontetan dau, "izan dituan aldiak, orainaldia eta batez be etorkizunari begirako aukerak".

Bertan, Gorbeian behar egiten daben artzainak agertzen

dira; tartean Enrike Etxebarria, Puy Arrieta, Jon Etxebarria, Juan-txu Astondoa, Antxon Iturriaga, Asier Urien, Gorka Perez eta Aitor Azkueta. Landa garapenean adituak, biologoak, politikariak eta beste profesional batzuk be agertzen dabez euren eretxiak,

aldarrikapenak eta proposamenak lanbidea ez daiten desagertu.

Dokumentalak artzaintzak mendietan daukan garrantziaz kontzientzietako balio gura dau eta, etorkizunera begira, "artzaintza modernorantza bidea egiteko for-



mulak aurkitzeko tresna" da.

**Urteko sasoiako irudiak**

Jose Luis Urrutia Bilboko idazle eta gidoigilea izan da dokumentalaren gidoiaren, zuzendaritzaren eta muntaketearen arduraduna eta Santi Yanizen droneak egindako irudiak be baditu dokumentalak. Artzaintzaren ziklo osoa jasoten dau filmak eta sasoiako lan desberdinak eta paisajearen aldatetako agertzen dira.

## IKASTAROAK

**2020ko lehen hiruhilekoan Igorreko udal ikastaroak egiteko izena emon daiteke****Erredakzioa**

Hilaren 23ra arte, *Zirkoa*, *Ariketa hipopresiboak*, *Yoga*, *Arte plastikoak*, *Txi-kung* eta *Irakurketa tailerrera* izena emon daiteke Igorreko Kultur Etxean.

Zirku ikastaroan hiru talde dagoz martitzenetan: ume talde bi eta gazte talde bat. Ariketa hipopresiboak eguzten arrastietan izango dira. Yoga, barriz, astean bitan: astelehen eta eguztenetan arrastiz, eta martitzen eta eguztenetan goizez zein arrastiz. Ines Medinaren mintegietarako be emon daiteke izena, *Arte plastikoaren bidez autoestimua garatu* izeneko zapatuetako ikastaro trinkorako. Txi-kung egiteko aukerea astelehen iluntzetan izango da eta irakurketa tailerra hilean baten astelehenean izango da.



Gabon zorientsuak eta urte barri on!!

2020



Arteako Udala



## AURKEZPENA

# Bittor eta Biok liburuaren aurkezpena berbaldi eta kantaldi baten bidez



### Erredakzioa

Abenduaren 20an, 18:30ean, Zamakola Elkartean, Gontzal Mendibil *Bittor eta Biok* liburuaren aurkezpena egingo dabe Juan Manuel Etxebarriaren berbaldia eta Gontzal Mendibil kantaldia-gaz.

*Bittor eta Biok* liburuaren azpititulua, *Bittor Kapanaga "Euskal Sokratesen gogoeta ondarea"* k dinoan moduan, liburuak Kapa-

nagaren pentsamentua jasoten dau. Kontaketea Kapanaga hil zan gauean hasten da bera eta Mendibil arteko alkarriketea izango balitz moduan. Liburuak, Juan Manuel Etxebarria Zeberio etnolinguistek orraztu dau euskerearen aldetik eta bera arduratuko da liburuaren aurkezpena egiteaz. Liburuagaz batera *Biok* disko argitaratu barriko hainbat kantugaz, kantaldia eskainiko dau egileak.

## KONTZERTUA

# Demode Quartet taldearen kontzertua Areatzan

### Erredakzioa

Garai guztietako kantu ezagunen bersino originalak zuzenean abesten dituen lau personaje bitxik osotuten dabe Demode Quartet. Sortu zanetik, oin dala hamar urte baino gehiago, ehunka antzokitan eskaini ditue euren musika ikuskizunak. Madrilen 2018ko antzerki ekitaldi onenaren Broadway World Spain sarierako izentau eben eta Donostiako zine-



ma jaialdiko galetan be parte hartu izan dabe. Areatzan izango dira hilaren 26an, eguena, 19:30ean, eleizan.

## BERTSO SAIOA

# Bertso eta marrazki ikuskizuna Igorreko Lasarte Aretoan

### Erredakzioa

Abenduaren 22an, Ipuin Erotiko Lehiaketako sari banaketearen ostean, 19:00etan, Onintza Enbeita egungo Bizkaiko txapeldunak, Aitor Sarriegi, Alaiia Martinek eta Igor Elortzak bertso saioa egingo dabe Igorreko Lasarte Aretoan, Igor Menikaren marrazkiez lagunduta.

Irudibertsotan, bertsolaritza eta marrazkigintza buztartzen dituan ikuskizuna da eta badira urte batzuk Arratiako Bertso Eskoleak, Igorreko Gabonetako egitarauaren barruan antolatuten dauala. Irudibertsotan-en, gai jartzaileak gaia emon eta bertsolariak abestu ahala, marrazkigileak irudiak egiten ditu. Holan, marrazkigintza eta bertsogintzako bat-batekotasunak, beti desbardina eta zale asko dituan ikuskizuna sortzean dau.



## DUNBA

# Errefujiaduen irribarrea

Arteko eskolara errefujiadu bi etorri dira euren bizi-tza kontetan.

### Arteko eskolako ikasleak

Artea eskolako 3. zikloko ikasleak gara eta hiruhilabete honetan errefujiaduen gaia landu dogu.

Gure herrian, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformea dago eta bertan, herrialde desbardinatetako migrante asko biltzean dira eta bestalde, eskolako agendan urriko hilabetean errefujiaduen gaia agertzen zanez ebatzi genduan gaia landutea.

Lehenengotik, errefujiadua zer dan definidu genduan.

Ondoren, euren egoera ezuteko jarduera desbardin ugari egin genduzan. Adibidez, Siriako gerra zibilaren ondorioz kanpalekuetan dagozanen egoerak ikusi genduzan.

Ikasi dogu, gerraz gainera badagozala beste hainbat egoera migrazinoak bultzatzen dabenak, adibidez, errazoi katastrofikoengaitik (tsunamiak, sumendiak), ekonomikoengaitik (lan faltea), giza arazoengaitik (gerrak, arazo politikoak, erlijiosoa), genero errazoiengaitik...

Ikasi genduan baita be, Euskal Herrian, Gerra Zibila egon zanean, jentek beste herrialde batzuetara



migradu behar izan ebala.

Amaitzeko, errefujiadu bi konbidau genduzan eskolara, Georgiako Nathia eta Nikaraguako Danilo.

Nathiak eta Danilok kontau euskuen euren herrialdeetan eroso bizi zirala, Danilo irakaslea eta musikaria da eta Nathia umeen jaialdiak prestatzen ibiltzen zan, baina hango egoera politikoaren ondorioz, bizia salbetako, iges egin

behar izan ebela eukien guztia han itxiz, etxea, familia, lagunak...

Kontau euskuen, egunen baten, euren herrialdeetara bueltetako asmoa daukiela, baina momentuz hemen, gure artean, babesturik sentiduten dirala.

Atzen galdera bat egin geuntsen, eurengeit zer egin geinkean eta erantzuna, irribarre bategaz agurtzea gura ebela izan zan.



Gelan, zer egin geinkean pentsetan hasi ginan, eta idea honek bururatu jakuzan, adibidez: komunikazioa erraztu, euskerea irakatsi, kultura errespetatu, alkarregaz jolastu eta jolasak erakutsi, eroso sentidu arazo, ez ulertutakoa azaldu eta abar.

Guk be, Nathia eta Danilok legez, gerrak amaitzea gura dogu errefujiaduak euren herrialdeetara itzuli daitezcan baina bitartean, eroso sentidu arazoteko gure eskuetan dagoana egingo dogu.

Besarkada handi bat!



## AGENDEA

### ABENDUAK 17 AREATZA

Urtailearen 3ra arte Bonodenda. Salgai udaletxean, herriko Orburu Merkatarien Elkarteko komertzioetan erabilteko.

#### BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 20ra arte, Gabonetako Postal Lehiaketako marrazkiak batu liburutegian.

19:00etan, Arratiako Musika Eskolearen kontzertua eleizan.

#### IGORRE

10:00etatik 20:30era, "Gabonetan kulturea oparitu!!" Lasarte Aretoko bazkide txartela 5 euro merkeago egin edo barriztu. Urtailearen 3ra arte Kultur Etxean.

Hilaren 23ra arte, *Zirkoa*, *Ariketa hipopresiboak*, *Yoga*, *Arte plastikoak*, *Txi-kung* eta *Irakurketa tailer*ren izena emon daiteke Igorreko Kultur Etxean. Ikastarook urtailetik martiara arte izango dira.

#### LEMOA

19:30ean, *Bide berriak-Soberania alimentaria en Euskal Herria* dokumentala. Ondoren solasaldia, Paul Nicholson (La Via Campesina) eta Nello Schisano-gaz (Mundubat Fundazioa). Gaztetxean.

#### ZEBERIO

Hilaren 31ra arte, *Arratiako Tranbia* erakusketea. Udaletxean.

### ABENDUAK 18 DIMA

18:30ean, Andraizeak antolatuta, Jone Ibarrurien berbaldia *Zer jaten dogu?* Elikagaien alde nutrizionala eta ingurugiroa eta ikuspuntu soziala. Abaroa aretoan.

#### IGORRE

19:00etan, Arratiako Musika Eskolako kontzertua *Musikatu bizitza eta urte barri on!* Lasarte Aretoa.

#### ZEBERIO

18:00etatik 20:00etara, Erremontari museora bisita.

### ABENDUAK 19 IGORRE

17:00etan, Azoka solidarioa Lehendakari

Agirre kaleko autobus geltokiaren osteko arkupetan.

#### LEMOA

10:00etan, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta, Gaztaina eguna ume eta gurasoentzat eskolan.

17:00etan, Udalak antolatuta, Marrazki Lehiaketako jai. Margo-ipuina saioa Ludotekan.

### ABENDUAK 20 AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, Gabonetako apaingarrien tailerra naturako elementuakaz. Izen emotea 94 673 92 79 telefonoan edo [gorbeia.pärke.naturala@bizkaia.eus](mailto:gorbeia.pärke.naturala@bizkaia.eus) helbidean.

#### BEDIA

Eleizalde Jubilatuta eta Pentsionisten Elkartek antolatuta, Gabon Jai Solidarioa frontoian.

17:00etan, atek zabalduta, ikastaroan egindako Gabonetako postal eta eskularen erakusketea, pintxo-potea, perkusino tailerra familian. Motxilak eta ludotekako tailerretan egindako gauzak salgai; 18:45ean, gimnasia erritmiko erakustaldia; 19:00etan, Jauziak taldearen eta umeen euskal jantzen erakustaldia. Etxetik janari pakete bat edo euro bi personako eroan behar da. Jatekoa, Elikagaien Bankurako izango da eta dirua Ekuma: Bissau Gineako osasun lankidetzako proiekturako.

#### DIMA

18:30ean, Juan Manuel Etxebarria eta Gontzal Mendibilen berbaldi-kantaldia *Bittor eta biok* liburuen aurkezpena. Zamakola alkartean.

20:00etan, konzentrazioa "Urrunketa politikarekin amaitu, Euskal presoak Euskal Herrira" plazan; 20:20ean, dispersioari buruzko informazioa, senide baten testigantza eta presoai gutunak. Abaroa aretoa. Dimen etxean gure doguz eta Sarek antolatuta.

#### IGORRE

17:30ean, Araluceko sarreratik hasita "BATZ Araluce ez itxi" lelopean manifestazioa.

20:30ean, preso eta igeslariaren aldeko bertso saioa Oihana Bartra eta Eneko Abasolo "Abarkas" bertsolariakaz Axular Herriko Taberna.

#### LEMOA

10:30ean, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak

antolatuta, Olentzero eta Mari Domingi eskolatik udaletxera.

#### ZEANURI

18:30ean, bertso musikatuak. *Ez da kasualitatea*, Alaia Martin, Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Oihana Iguaran bertsolariakaz. Kultur Etxean.

#### ZEBERIO

18:00etan, ballet erakustaldia plazako frontoian; 19:00etan, *Artzaintza Gorbeian. Milaka urteko lanbidearen iragana, oraina eta etorkizuna* dokumentalaren aurkezpena udaletxean.

### ABENDUAK 21 IGORRE

21:30ean, Easier eta Alfred Adler-egaz, house eta disko sesinoa. Amaitzeko, Tibe vs. Azkonar teknoagaz. Sarrerea: borondatea. Kiñu Gaztetxean.

### ABENDUAK 22 AREATZA

10:30ean, eleiza aurrean. AKKBko urtekerea Euskaldunara, Bilboko Musika Bandaren *Begiradak haurtarotik* ikuskizunera. Konbidauak: Marife Nogales mezzosopranoa, Bilbao Musikako haur abesbatza eta Bilboko Koraleko haur abesbatza.

#### DIMA

11:00etan, Igitieko Azokea; 13:00etan, *Giza Eskubideen urraketak Hegoaldeko mugan* berbaldia Abaroa aretoa.

#### IGORRE

18:00etan, Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen sari banaketea. Oihan Vegaren *Zergaitik praktikatzan dugu sexua gaztelaraz?* bakarriketea eta Ismael Pereiraren *showa*. Publikoaren artean jostailu erotikoak zozketatuko dira Lasarte Aretoa.

19:00etan, Irudibertsotan, Arratiako Bertso Eskoleak antolatuta, Onintza Enbeita, Aitor Sarriegi, Alaia Martin eta Igor Elortza. Marrazkilaria: Igor Menika. Lasarte Aretoa.

#### LEMOA

18:00etan, Puski eta Txurruskiren umeentzako ikuskizuna Gaztetxean.

#### ZEANURI

Jaiotza Gorbeiko kurutzan ipini. 10:00etan, "ezkontza" Igrinaoko Edurretako Amaren ermitan; 12:00etan, jaiotza ipini Gorbeiko kurutzan.

18:30ean, *Gorbeiatik Gorbeara*, Elena Ocasar eta Aitor Intxaurrearen ikus-entzunezkoa. Kultur Etxean.

#### ZEBERIO

14:00etan, euskal jantzen erakustaldia plazan; 20:00etan, kontzertua, musika kubatarra Ermitabarriko San Antonio ermitan.

### ABENDUAK 23 ARTEA

11:00etatik 14:00etara, Gabon ekintzak ludotekan.

20:30ean, Evening Prayer Gospel taldea Kultur Etxean.

#### BEDIA

17:00etatik 19:00etara, Gabonetako tailerrak ludotekan.

#### IGORRE

18:00etan, Arantzarteko gazteen jantza saioa kiroldegiko frontoian.

#### LEMOA

Udalak antolatuta, ludotekako urtekerea Gasteizera 2008 eta 2011 bitartean jaiotakoentzat.

#### ZEANURI

18:00etatik 20:00etara, urtailearen 5era arte, oin dala 50 urte Zeanurin antzeztutako *Usadio zaharreko ezkontza* titulupeko erakusketea Eguzkiolan.

19:00etan, Gabonetako kontzertua. Zeanuriko korua eta txistulariak. San Isidro eleizan.

#### ZEBERIO

20:00etan, Xabier Madariaga Ur Handitan *Motxiladun umeak* udaletxean.

### ABENDUAK 24 ARRATIA

Olentzero eta Mari Domingi. Ikusi herrietako programak erdiko orrialdeetan.

### ABENDUAK 25 LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, mendi urtekerea Urkiola-Anboto (1.331 m.).

### ABENDUAK 26 AREATZA

19:30ean, Demode Quartet taldearen kontzertua eleizan.

#### ARTEA

11:00etatik 14:00etara, Gabon ekintzak ludotekan.

#### BEDIA

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Gabonetako Parkea frontoian.

#### DIMA

City Jump eta Gasteizera urtekerea 2002 eta 2007 bitartean jaiotakoentzat.

#### IGORRE

20:15ean, AMEk antolatuta, Alazne Etxebarria eta Mikel Bermejoren *MonoloKos*. Ondoren Gabonetako 3 otzararen zozketea.

#### LEMOA

11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Gabonetako Haur Parkea kiroldegian; 19:30ean, Bentazarreko mutiko alaiak kantu-jiran. Kresala tabernatik hasita.

#### ZEANURI

19:00etan, identidade sexuaduen gaineko berbaldia Iñaki Goñiren eskutik. Kultur Etxean.

#### ZEBERIO

12:00etan, Etxazo auzoko jaiak. Mezea San Esteban ermitan, herri kirolak...

### ABENDUAK 27 ARANTZAZU

10:00etatik 12:00etara, Maddigaz patinetan frontoian. Izena udaletxean emon hilaren 23a baino lehen.

#### ARTEA

Gabonetako Umeen Parkera urtekerea 4 eta 14 urte bitartekoentzat.

#### BEDIA

10:00etan, urtekerea Gabonetako Umeen Parkera. Bazkaria eta merienda eroan behar da.

#### IGORRE

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea eta Zaztaparrak-en tailerrak aterpean.

#### LEMOA

Txaxarri Egune. Gaztetxean.

#### ZEANURI

17:00etan, umeentzat zinea Eguzkiolan, *Alita*. Emakumeak zineko protagonistak. Eguzkiola eta Laratzue Kultur Elkartek antolatuta.

18:30ean, Gontzal Mendibil eta Iñaki Garcia Uribegaz *Gorbeiatik kontuak eta kantuak*. Kultur Etxean.

#### ZEBERIO

20:30ean, Bola jaurtiketea eta taloak Ermitabarrian.

### ABENDUAK 28 ARANTZAZU

19:00etan, Txoborro magoa herriko tabernan; 20:00etan, bingoa eta kopaua.

#### ARTEA

18:00etan, orientazio lasterketea eta askari

popularra plazan.

#### IGORRE

20:00etan, Luis Iruarrizaga Abesbatzaren Gabonetako kontzertua Lasarte Aretoa.

#### ZEANURI

17:00etatik aurrera, pelotea. Bigarren Mailako Binakako Txapelketako kanporaketea. Frontoian.

19:00etan, zinea *Conociendo a Astrid* Eguzkiolan. Emakumeak zineko protagonistak. Eguzkiola eta Laratzue Kultur Elkartek antolatuta.

#### ZEBERIO

12:00etan, San Tomas zaharra Barbatxao auzoan.

### ABENDUAK 29 ARANTZAZU

11:00etan, umeentzako Scape Room, errealidade birtualeko betaurrekoak eta jolasak frontoian.

#### IGORRE

17:00etan, zinea *La familia Addams*; 19:30ean, *La trinchera infinita* Lasarte Aretoa.

#### LEMOA

20:00etan, Jausiko haz eta Pintxo Lehiaketea. Gaztetxean.

#### ZEANURI

18:30ean, *Artzaintza Gorbeian. Milaka urteko lanbidearen iragana, oraina eta etorkizuna* dokumentala. San Isidro eleizan. Aurretik Argazki Lehiaketako sariak bananduko dira. Erakusketea abenduaren 24 eta 31n goiz eta arrastiz egongo da udaletxe azpiko gelan.

### ABENDUAK 30 AREATZA

20:00etan, Areatzako Bandaren urte amaierako kontzertua. Eleizan.

#### ARTEA

11:00etatik 14:00etara, Gabon ekintzak ludotekan.

#### BEDIA

17:00etan, zinea *Ploey. Ez duzu inoiz bakarrik hegan egingo* pelikulea ludotekan.

#### IGORRE

17:00etan, Jostailu Azokea, Zaztaparrak eta Maraturen eskutik Kultur Etxean.

#### LEMOA

Udalak antolatuta, ludotekako urtekerea Bilbora 2012 eta 2015 bitartean jaiotakoentzat.

18:00etan, *Mandala* tailerra. Gaztetxean.

#### ZEANURI

18:30ean, Gorbeia Suzien 2020. Skyrunner World Series-eko lasterketea. Oihana Azkorbebeitia korrikalaria eta Iñaki Uribetxebarria Euskal Selekzinoko hautatzailearen berbaldia. Kultur Etxean.

#### ZEBERIO

18:30ean, Juan Manuel Etxebarriaren berbaldia *Euskeraren transmisioaren garrantzia*. Udaletxean.

### ABENDUAK 31 AREATZA

09:00etan, eleiza aurretik urtenda Lamiño Kirol Klubak antolatuta Urrekoatza eta Ilunbera mendi urtekerea. Saldea, txanpana, gaztaia, pernila eta txorizoa egongo dira.

#### LEMOA

18:30ean, Arratiako Kalera Kalera eta Lemoako Bagabiz Badatozek antolatuta, euskal preso, igeslari eta deportaduen aldeko manifestazioa Intzuntza plazatik urtenda.

#### ZEBERIO

10:00etan, Austarri Mendi Taldeak antolatuta, Tontorrandin agur 2019 urteari. Bolanderak, txanpana, hamaiketako... plazatik urtenda.



## Lasterketak Gabon Zahar egunean

Abenduaren 31n mundu osoan egiten dira herri lasterketak. Baita Igorren, Lemoan eta Zeanurin be. Igorren lasterketa hau mozturrotuta egiteko ohitura dago. 11:00etan hasiko da izen emotea eta 11:30ean lasterketea.

Lemoako IX. Gabonetako Lasterketea Eneko Zamalloa Memoriale 12:00etan hasiko da Elizondon. Hiru ibilbide egiteko aukera egongo da 500 metrokoa umeak eta 1.300 metro edo 4.000 metrokoa nagusiak.

Zeanurin, parte hartzeako hitzordua 11:00etan da. Ostean, taloa eta saldea egongo dira indarrak berreskuratzeko.



# AKIMIKO

K a i l o R e n



## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### SALGAI

Sueteko beheko parterako egurrezko armairua eta estalga, labea eta bitroagaz, merke saltzean dodaz. Txoko baterako aproposak dira. Deitu 657 777 542 zentakira.

#### TREKKING BIZIKLETEA SALGAI

Kreidler (RT Raise) markakoa, taila handikoa, barri-barria; zikloturismoa egiteko berenberegikoa. Prezio onean. Otxareta eta atzeko boltsak oparizat. Interesdunak deitu 685 711 598 telefonora.

### DANERIK

#### PISUA ALOKATZEN DA

Zeanurin pisua alokagai. 3 logela, komuna, egongela, sukaldea eta balkoia. Interesdunak deitu zenbaki honetara: 628 041 526.

#### LONJEA ALOKAIURUAN HARTZEAN DOT

Lemoan 80 eta 150 metro bitarteko lonjea behar da alokairuan hartzeako. Deitu 617 046 429 telefonora.

#### KOMERTZIALA BEHAR DA

Komertzial lanetarako persona bat behar da. Ez

da esperientziarik behar. Interesdunak bialdu curriculumak [info@behingoz.es](mailto:info@behingoz.es) helbidera.

#### BASERRI BILA

Lagun bi, alokairuan hartzeako baserri bila gabiz. Deitu 690 984 588 edo 678 902 509 telefonora.

#### IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, DBH 4. mailako Fisika eta Kimikako klase partikularrak emoteko persona bat behar da. Interesdunak deitu 620 607 952 telefonora.

#### ZUME BILA

Zume bizi zein lehor bila gabiliz; erosi ala trukea egiteko aukeran. Landan izan ezkeru, gu geu mozteko prest gagoz. Telefonoa: 655 709 771.

**Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

1

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera La trinchera infinita filma ikusteko.**

Igor Abrisqueta (Igorre)  
Klara Astondoa (Areatza)



2

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera La familia Addams filma ikusteko.**

Eneko Iza (Igorre)  
Mari Eli Olabbarri (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umean meda  
**sem**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 92 96 • [semodu@hotmail.com](mailto:semodu@hotmail.com)

*Kepa Intxausti*  
TAXI ZERRITZUA  
609421222  
IGORRE

*Orrie*  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, E.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 73

**begitu**  
argitalpen txokoa

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
[aitzol@coavn.org](mailto:aitzol@coavn.org) - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, 3. 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel. 609 482 830 • 609 200 717

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tlf.: 94-673-70-87  
Tlf.: 609-79-40-54

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK  
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Pinturas Artatia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**NAIARA** HORTZ KLINIKA  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26





## Areatza Bainuetxea



Heldu da Olentzero Areatza Bainuetxera

Honeek dira gure opari bonoak:

- Zirkuitu termalak
- Fisioterapia bonoak
- Masajeak
- Zirkuitu bonoak + bazkaria
- Estetika
- Hotelean egoteko bonoak + bainuetxea
- Bikoteentzako gutiziak
- Hidroterapia
- Gorputza zaintzekoak

Imajinetan dozun guztia oparitarako bilduten deutsugu.

Bila etorri zaitezke edo emailz bialduko deutsugu.

[www.hotelbalnearioareatza.com](http://www.hotelbalnearioareatza.com)

[info@hotelbalnearioareatza.com](mailto:info@hotelbalnearioareatza.com) - 94 657 27 05

Askatasuna 50 Bis - 48143 - Areatza - Bizkaia